

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

248n. zenbakia
zezeilla 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



EUPEME DEUNA

KAI-ONDOKO ZIN-ELEIZAN

BERMEO'N

APRAIZ'TAŖ ODON, EUZKALDUN

U estarazu'ta Andoni'k

EUZKALDUN. Auxe, geron ustez, gure adiskide ona dan Apraiz'taf Odon jaunari dagokion deitura berziena, egokiena atsegiñena.

Erdaldun jayo zan Odon, aspaldidanik arabaf geyenak bezela, dagoaneko ta aspalditik ere erdalduna zan Gasteiz'en; bere guraso ta sendikoak, erdaldunak; uriko gogo-eguratsa ta kaleko bizia, erdaldunak; Araba geyena, erdalduna; oro berarengan eta bere inguruan, erdalduna. Alaz ere, bere gaztezaroon, Odon'ek, bere naimen osoaz, euzkalduna egin zuen bere burua.

Zerik zetara nai-izan zuen Odon'ek euzkeraz jakitea? Kanpion'i ta onen antzeko beste batzuei gertatu ote zitzaion?, euzkotafa izan, Euzkale i'an jayo ta bizi, ta euzkaldun ez izateagatik lotsatu apika?; bere burua, ez jayotzez baka ik, baña bere naimenaz euzkaldun osoa izateko gogoaz, o ela, berarengan izena ta izana bat izan zitezen, ausaz'?

Karia edozein izan, Odon'ek, gaztea zalarik, euzkeraz ikasi zuen, eta nola ikasi!, edonork bezin ongi; etzuen ikasi mintzatzeko ta idazteko lain izateko bakarrik gero, izkuntzalariek ikasi duten bezela baizik; eta bera ere izkuntzalari ospetsua dugu, izkuntzaren ezagupena yakintzaren goiko maletan ere egiteko. Nor da, bai, Odon, ortan, aspaldi xama etik alegia.

Ortaz, Odon, arabaf guzientzat eta euzkaldun guzientzat ere erdua da. Bere gaztezaroon, oso gutxi ziran bere bidetik abiatu ziran ikastunak: auek, naiz eta jayotzez, asko, euzkaldunak izan, alboan utzi zuten laister gurasoengandik ikasitako mintzoera; ta erderara jo, ke-ke, erdal-giroan zearo pulunpatzeko. Bost ajola aientzat, beren Efi'aren izkuntza suntzitzeko bidean ikustea, ta izkuntzarekin batera E ia alka ekin iltzea, ezinbestekoa edo iruditu zitzaielako.

Apraiz gure adiskideak etzuen, noski, ori onartu, ta eginbidetzat artu zuen berarentzat, lenengoz euzkeraz ikasi ta gero beraren alde al liteken lan guzia bete. Orixe berarentzat gorapen aundien, aipaga iena; ta orixe, guzientzat, beragan eredu ikusteko zioa.

Bere xedeetarako, gartakizun oso egoki bat izan zan gure E i'an. 1918'-gafen urtean, lau erkietako Diputazio'ak antolaturik, Oñate'n burutu zan "Euzkal-ikasketako Batza" aundia. An, orduan bizi ta ari ziran izkuntzalari onenak beren lanak ageferazi zituzten, gure zegozkion ikasteko gai guziak ontzat artzeko ta beren alde lanegiteko bideak atontzeko ere. E i guziak onartu ta lagundu zuen an egindakoa, bai ta gerorako eratu zan egitaraua ere. Bilera aietan ugari izan ziran erabilitako gaiak, baña batik bat euzkerarena; ta orixe izan zan beñena, maiteena ta adipe aundiena ukan zuena. Izkuntzalari onenak, etxeokoak eta beste batzuek, an aurkeztu zituzten ikasita zcukatena ta euzkeraren osasunerako beren iritziak ere. Ajen artean gasteizta ospetsua izan zan Olabide aita, au enetakoa izan genuen; eta an agertu zan Odon ere.

Bilkura aietatik, gero ainbeste lan egingo zuen "Eusko-Ikaskuntza" bazkuna sortu zan eta o en u engo "Euskaltzaindia" ere. Lenengoa, gudagatik il zan damurik, ta biga ena of dago bizirik, nalabait. Etziran izan alpefik eginak Oñate'ko bilkura ede ak; gero "Eusko-Ikaskuntza" lau urtetik lau urtera E i'aren zeaf, beste batza ak antolatatu zituen, lenengoen jafaipeña bezela; ura zan ede a, urte gutxi ba u apurtuta geratu zitzaiguna. Bidezkoa izango litzateke, alegia, bazkunaren berpiztea lortzea, ta orixe nai-izango genuke barnetik.

Bide oso egokia bazkun aiek ideki zutena, Odon'en asmo ta gogoak au era eramateko; lenengoaren idazkaria Gotzon bere anaya izan zan arek irauu zuen bitartean, eta o ela ba-zuen Apraiz sendiak arekin egindako elkarbide berezia. Biga ena, sortu bezin laiste, 1919'ko u ilan, Odon urgazlea izendatu zuen lenengoen artean; askoz geroago, 1968'ko lotazilean, oorezko euzkaltzaña izendatzeko ere. Ta "Euskaltzaindi"ak berak, 1920'ga enean, izkuntzaekiko ikasketak

geitu ta borobil zitzen, Odon Europa'ko Ikastola Nagusi batzuetara joan zedin erabaki zuen. Eta Odon'ek etzuen alpe ik ustiatu andik lortutako laguntza; of dagoz bere lanak aldizkarietan barna emanak, eta oien artean lenengoz Urkijo'ta Julio jaunarena ta gero "Eusko-Ikaskuntza"ren aldizari ede a izan zan "RIEB"en bereziki.

"Euskaltzaindi"ak geroago, "ERIZKIZUNDIIRUKOITZA" deitu zuen efiz-efi egiteko azterketa antolatu zuen. Azterketa ori abotsizti, izkeraziti ta itz batzuen aldakuntzari buruz egin bea zan, emandako befeunen bat itaukeraen bitartez. Azterleen artean, Odon izan zan bat, eta 1928'ko "Euskera" aldizkarian burutu zuen lana agertzen da. Odon'ek Laburdi'ko euzkalkiaz lau e ietan eta Napa oa Ba en'eko euzkalkiaz bederlatzi e ietan egin zuen bere lana 1930'ko ilbeltza-epaila'ko "Euskera"n azaltzen danez.

Izkuntza zala-ta, berari dagokion gai berezian, laiste agertu zan Odon irakasle bezela: Tokien izcnak darabilzkien yakintzan. "Euskal" sortu ta bereala beraz, yakintza o i buruz batzorde berezi bat izendatu zuen; Olabide izan zan batzorde o en lendakaria ta Odon eta bizkaita a zan Oleaga jauna batzordea osotzeko.

Ba-du gaia, ugari yakintza o ek gure Efi'an, ainbeste baitira tokien euzkal-izenak, ikaskai batzuen iturburu bezela. Izen oiek era-kusten ditute, argi, euzkaldunak nun bizi ziran, eta gaurko gure mugactatik at ere ez dira gutxi agertzen diranak, gure E ia aspaldian norraño edatzen zan adierazteko.

Izen oiek euzkeraz egiñak dagoz guziak eta izkuntzaren legeen arauz. Nola ja i zituzten izen oiek euzkaldunek, ain egoki?, ta euzkal-oiñafiz ain zuzen? Eztakigu euzkera nundik datofen ala nun eratu zan, eta ain aspaldiko izkuntza izanik, afgafia da bere egitura ain ede eta aberatsa izatea; jakitun aundiek egiña dala dirudi, baña nortzuk izan ziran jakitun aiek?, nun bizi-izan ziran?, nola burutu zituzten beren lanak? Ala izkuntza berez sortu ote zan endaren zitu egosia bezela? Dana dala, emen, gurean dugu euzkera, gure ta gizadiaren ondasun aundienetakoa dalarik. Eta izkuntza bezela bearbada, tokien izenak ere, e az eta berez zituzten antziñako gure arbaso aiek, eta emen ditugu yakintza baten ondorea bezela.

Eleizalde'tar Koldobika jaunaren u atsetatik ja aitzean, bide ortan abiatu zan Odon, tokien euzkal-izenak aztertzen eta azaltzen, ez zoro-moro noski yardutean, bazte etan edozein eraz ainbestetan egin dan bezela, yakintza utsaren arauz, baizik. O i buruz berak egindako lan bat bederen aipatzeko, auxe: 1924'-ko "RIEB"en aldizkarian (306'gn. ofialdean) eta ain zuzen "Eleizalde'ren oroimenez", "zubi" itzarekiko lan egokia eman zuen, e otzat arturik.

Ez ditugu ezagutzen Apraiz'taf Odon'ek egindako lan guziak, baña bearbada onenetakoa, Sasia'tar Yoseba Mirena OSB aitak 1966'ga enean argitaratutako "Toponimia euskérica en las Encartaciones de Vizcaya" idaztiari ja i zion itzau ea da, bertan irakasle aundia bezela agertzen dalarik.

Naiz Sasia'k naiz berak ere, toki-izenen bitartez, aspaldiko euzkaldunak norraño zabaldua ziran ebazkizuna darabilte, ta kari ortaz, euzkal-lu ak izan ziran guziak bat jota, lau eskualde auetan banatzen ditu Odon'ek: 1.-) Ipa eta Ipa -Sortalde; 2.-) Auñamendi'ren Sortalde ta Egoaldea; 3.-) Ebro ibayaren egoaldea; 4.-) Sartalde; eiki, ikasketak oiek egiteko banaketa ona bezela.

Lenengo iru eskualde oieta toki-izenak efuz azterturik izan dirala diño, ta aztertze ta yakintzu oien izenak ematen ditu, bai ta beren lanak nun agertu diran aipatzen ere; baña lauga enari buruz gutxi omen da idatzi dana; Eleizalde bera ere, "La raza vasca" izeneko bere lan batean, lenengo iruetai buruz ari-izan ei zan; sartaldekoaz ezer ez.

Sasia'k, ain zuzen, sartaldeko ori bere lanerako aukeratu du; ez ala ere bere osotasunean, Bizkaya'ko "Enkartazioak" izenezko eskualdea

baka ik baño. Ta Odon'en iritziaz, Sasia'ren lana, adibidez arturik, beraren antzeko beste lanetarako, eragingafi bezela a liteke; ta sortalde guzia ikasi ta aztertzeko bide bezela, beste lau eskualde auek esondatzen ditu Odon'ek, erabiltzeko: 1) Araba'ko Ipa -Sartaldea ta Sartaldea; 2) Villarcayo eskualdea, Ebro ibayaren Ipafaldean eta bere iturbururaño; 3) Trasmiera eskualdea; 4) Bureba'rena, Ebro ibayaren iturburutik Oka Mendieta'raño.

Sasia'ren lana, Odon'en aburuz, beste lan iraunga ien oña itzat ere, ziñez eta ziuf, a diteke.

Naiz izkuntzari buruz naiz edestiarekiko Odon'en beste lanak aipa litezke; guretzat ezta ori oso e aza, ta ziuf gagoz eginkizun ori beste batzuek, ni baño askoz geyago diranak burutuko dutela. Geron aldetik naikotzat izan dugu Toki-izenen yakintzan Odon nolako erpieraño eldu dan, nolabait adieraztea.

Asieran, Apraiz'taf Odon, ikastunentzat bereziki, ta gure E i'an jayo geran guzientzat ere, eredutzat artzekoa dala esan dugu. Baña ba-dago beste ikuspegi bat berdin aurkezteko dana, eredutzat ere.

Idaztietan ikasi zuen Odon'ek euzkera lendabizi, ikastun bati zegokion lez; baña gero, e ita euzkaldunen ezpañetatik jaso nai-izan zuen izkuntza, bere iturburuan bezela; ta Araba'tik irten gabe, Aramayona'ra jo zuen, gure euzkal-txoko ortan, len begiz eta buruz ikasi zuena, gero entzunez ere orobat egiteko. O a guziói dagokigun bide bea a, oña argi nabariturik guziok edateko dugun itu i bikaña, ezinbestekoa nire ustez. Odon'ek garbi ikusi zuen bea ori, ta o engatik jayotzez euzkaldunak ziran araba en artean osotu nai-izan zuen len egindako ikaspena.

Bearbada ezta aski aipatu, geron artean ere, Euzkal-E i'ak mendez-mende burututako lan aundia, ongi ulertzen eztan eraz: euzkerari eustea. Naiz beraren aurka, inguruko erderak, nai ta nai ez, egindako guda ikaraga ia izan, naiz bere semeen ez ajola ta sorayokeria ain aundiak agertu, gure izkuntzak, aspaldidanik, iñork esan ezin dezaken noizdanik, iraun egin du, gure E i'an bertan, eta luíaz naiz mintzalez ainbat galdua en, bizirik dago gurean, galtzeari, eriotzari ta ezespenari buru-egiten. Guziok eta gizadiak ere orixe zof diogu gure E i'ari; o en altxo aundia dan gure mintzaira emen dago, bere aberastasuna eskeintzen eta bere seme guzien maitasuna eskatzen, naimen goto enaz il ez naiean.

Alatza bezela aipatu da askotan euzkeraren bizia. Humbolt'ek eta bera bezela beste askok ere, gaur ia bi mende dirala, bizi ori bere amaitzera urte gutxi batzuen ondoren elduko zala iritzi zuten. Eta euzkera emen dago bizirik, gaur bizi ori ain gutxituta badago ere.

Auxe dugu, gañera, bein eta be iz nabarierazteko: bizi ori euzkaldunen ezpañetan izan dugu baka ik, ez beste iñun. O a oí guziok eta guzirako beti sendo gogoratu bea duguna. Bai, euzkeraren bizia, mintzatuz burututako bizia; mendeetan barna, eten gabe, egun arte.

Mintzatzean dagoen ga antzia adierazteko, buruak erkatze berezia egitea ematen digu. Latera ta euzkeraren artean, ain zuzen. Guziok dakigunez, aberatsa izan zan, benetan, latera; bere elertia, ausaz ede ena Ludi'ko besteen artean; bere gogo-lantzea yori ta zabalduena ere; joan dan menderarte Europa'-ko Ikastola Nagusi geyenetan, guzietan izan ezpada, ikasteko bide bea a; gure egunak eldu arte, orobat apeztegi guzietan ere. Alan eta guzti, gaur latera izkuntza ila da, iñun mintzatzen ezpaita; elerti edefenez egindako ze aldo a iga ian datza, ila.

Aitzitik, gure euzkerak izan duen elertia, idatzita dagoena bederen, oso txiki ta txiroa dugu; izandako elerti obea, beste aldetik, mintzatua izan da, bertsolarien aoetan, mintzatua ta abestuta. XVI'ga en mende arte etzan ezer euzkeraz idatzi, ta gure mende au asi arte, idatzitako guzia ezta gauza aundirik izan, ez eta beste izkuntzetan ager-

tu dana bezin aipaga ia. Ta gure euzkera, elertirik gabe, aintzakotzat af ezin ditekengogo-lantze barik, ementxe dugu bizirik oindiño, txilegin nai ezean. Afigafia!

Baña ez ote dago egipen ortan guzientzako ikaskizun egokitzat af dezakeguna? Baietzean gagoz, eta baitezpadakoa deritzaigu ororen aldetik ikaskizun ori ikastea. Izkuntza bat, bizirik ja aitzeko, E i'aren aoan egunero erabiltzekoa da; orixe da oña ia, orotarako asiera. Bost ajola, laterak bezela, elerti ede enetakoa egin, giza-lagunen ezpañetan itzaltzen bada; mintzatuz eutsi bea diogu euzkerari, bizirik iraun dezan.

Ezta o ek esan nai gure elertia u uñatu bea dugula, iñola ere; alderantziz, alegin aundienak egin bea ditugu goyeneko elerti edefenetakoa noizpait lortzeko; baña esandakoaz gogoratuz, ezinbestekoa deritzaigun bidean barna zuzen joatea dagokigula, ondorio bezela atera dezakegu.

Bea -bea ezkoa dugu, geron gardiz, gure elertia, idatzitako elertia, E i'ak darabilen mintzoeratik geyegi ez u untzea. Ba-dakigu E i'ak, sa i, erderakada itxusiak darabilzkiela, ta ez itzai buruz baka ik, txa ena dana, euzkerarena dan joskeraren aurka diranak ere; gizaldiz-gizaldi "Aita gurea" esan da bazte guzietan gure otoi nagusia egiteko; gaur zuzendu da ori, Meza'rako erabaki dan era be ian bederik; za ai zala izango zaie otoi-egitean "Gure Aita" esatea, baña geyenak ontzat artuko dute zuzentza ori egitea.

Ba-dagoz gure mintzairan o en antzeko beste amaika erderakada ere; ona izango litzake, astiro ta bat-banaka al ditekenguziak zuzentzea, iradurik gabe ta eroapen aundiaz, bide batez itzen zentzuna tinkotuz. Baña auxe aztu gabe: Euzkera dala-ta, E i'arengan geyago izango dugu beti ikasteko, berari irakasteko baño; oña ia bezela artu beaf dugu ori, euzkerari buruz ari geran guziok.

Azken aldi auetan eta E i'ak berak so erazita, u ats ede enetakoa ematen ari da gure izkuntzaren alde, euzkal-ikastolaen bitartez; eta o ezaz atsegiñena bezela agertzen dana, auxe edo da: bazte guzietan gogo bera ikusten dala, e i bakoitzean bere ikastola eukitzeko ta bera laguntzeko naimen berezienaz.

Ortxe, beraz, euzkerari eusteko bide bikaña, dagoaneko zitu ede ak ematen ari dana. Geron ustez neu i aundienaz lagundu bea dugu guziok bide ori; ta oso egokia izango litzateke, ortan ere, andereñoek eta irakasleak diran guziek emen aipatu duguna onartzea, au ak ikasiko duten euzkera e ikoia izan dedin euzkaldunak diran uri eta e ietan batez ere, au ak eta beren gurasoak, alkafi ongienik ule dizaioketen.

Araba'n dagokionez, beste toki batzuetan bezela, ba-dago beste elburu aundi bat, ikastolak eta guziok ororentzat onartu bea duguna: Araba guzia be iro euzkalduntzea; oso ufuti dagoen elburua, baña o untz abiatu eskero, Araba'rentzat ezta izango berandu; bea a zaiguna, araba guziok elburu ori biotz-biotzez onartzea da.

Emen goretzi nai dugun Apraiz'ta Odon jaunak, berarentzat artu zuen elburu ori, ta aurki lortu zuen, pozik, EUZKALDUN izatera eltzea. Len esan dugunez, araba entzat bereziki, eredutzat a dezakegu, bere u atsak ja aitzeko, egun batean gure Araba maite au ere, be iro, itzaren zentzun ertsiaz, benetan EUZKALDUN izan dedin. Orixe araba guzientzako yoran yaukal eta biziena izateko.

Ain adiskide ona dugun Apraiz'ta Odon euzkaldunaren omenaldi ontarako, gogo ta biotzez eskeintzen ditut le otxo txiro auek; ona bitza berak gogo onez, berarenganako nire adei on eta nire adiskidetasun kartsuarekin batera.

URRESTARAZU'taz ANDONI'k (+)

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ

EUSKALERRIA VI

(Edesti-gioia)

Makallau-arrantza

Galeioak, fragatak eta karabelak, barku aundiak ziran, eunka toneladakoak, eta bale-arrantzarako erabiltzen ziran. Ontzi txikiagoak, eun tonelada inguru-koak, berriz, makallautarako eta kastor-narruen truke-rako.

Ameriketarako bidea ikasi aurretik, Islandia'ra joaten ziran euskaldunek XV'garren eunkirako; askoz aurrerago, Irlanda'ra, gaur egun Gran Sol'era joaten diran moduan. Balearen billa joaten ziran toki urrutietara; baita, makallautan ere. Kanada'ra, ordea, bale-billa joan ziran eta bertan makallaua topatu zuten itxaso ez tali.

Tokirik aukeratuena beti izan zan Kanada eta Terranoba arteko San Lorenzo ibaiaren milla kilometroko kolko luzea. An topa zuten Bizkai'ko balea, sardatan, multsoan eta ortik ipiñi zioten izen "Sarda'ko Balea". Zenbat euskaldun joaten zan ara arrantzarako? Espilla kapitanaren urteetan, XVI'garren gizaldiaren erdi aldera, 200 ontzi armatzen zituzten eta ontzi oietan 10.000 gizasemeetatik 20.000'ra.

600'garren urtean Mutriku'ko udal-etxean ez zegoen batzarririk egiterik, ziñegotzi guztiak Terranoba'n zirelako. Egun batez, urrillaren 15, urtea 1625, Pasaia'ko portuan 41 barku zeuden 295 txalupa barruan, 1.475 mariñelekin. Barruan sartu zituzten 3.680 sagardo barrika. Ordurako Kanada'ko arrantza berantz asita zegoen. 1681'an, ingeles eta holandesen kompetentzia tartean dala, Donosti'tik 13 ontzi urten zuten: bederatzi aundi baletarako; 4 txiki, makallautarako.

Euskaldunek zirala baleetan asitako lenenak eta beste guztien maixu, eta makallautan onenak, esaten digu Nicolas Denys'ek 1670'garren urtean. Eta arrazoi au ematen du: Arrantzarako narruzko bota luzeak eramaten dituzte iztarretaraiño eta gañetik jantzi luze bat oiñetakoak gordetzerañiño, ardi-narruz egiña illea azpitik duela, koipeakin ondo igartzita. Gerritik beera narruzko beste jantzi bat, ura ere ondo koipetuta. Eta txapelak, eskapularioak aurretik eta atzetik gerrirañiño dituela. Orrela jantzita irteten dute arrantzara eta, datorrena datorrela, eutsi egiten diote. Beste naziotetako arrantzaleak euria asi orduko, lagatzen diote

EUSKERAZALEAK

(Euskerea erabiltearen aldeko Alkartea)

BATZAR NAGUSIA

Euzkerazaleak Alkartean urteroko Batzar Nagusia egingo dau, bere Batzar-Etxea dan Larreategi'ko Kolon kalean 14, 2n., eskoian, zezeillaren 24'an. Egunean, arratsaldeko 8'etan.

Batzar orretan urteko ekintza guztien barria emongo da, diru-arazo guztiak zeatz agertuko dira eta Alkartean Batzordean aldakuntzak egiteko aukerea eskiñiko da: Lendakaria, Diruzaiña eta maiko bi aldatzeko. Bazkide guztiak dira eskubidedun autagaiak eskintzeko.

LENDAKARIAK

ASAMBLEA GENERAL

La Asociación EUSKERAZALEAK celebrará su Asamblea General Anual en su domicilio social en Colón de Larreategui, 14, 2.º, D.º el día 24 de febrero de 2000, a las 20 h.

Como puntos del Orden del Día se establecen los siguientes: 1.- Exposición de actividades de 1999. 2.- Información económica referente al mismo año. 3.- Renovación de cargos de Presidente, Tesorero y dos vocales. Todo socio puede presentar candidaturas. 4.- Ruegos y preguntas.

EL PRESIDENTE

lanari. Eta, orrela, besteak txalopa erdi bat betetzen dutenerako, auek bete dute eurena. Gero esaten dute, sorgiñak direla; baña, bekaitzez diote ori.

Makallaua, gorde baño lenen, aizeetan legortzen zituzten. Toki berean makallau geiago sartzen zan, gordiñik gazituta ekarrita baiño. 1670'garren urtean, makallautan zebiltzenak, era onetara egiten zuten partilla: Arrapatuko dana asmatu, eta neurri aretara eman bakoitzari bere zatia. Pentsatuta baiño gutxiago arrapatu ezkerro, asmatutakoaren erara neurri berrian egin partilla.

Arrixkuak

1533'an Erregearen ordena au artzen dute Bizkaia eta Gipuzkoako terranobazaleak: Ondo armatuta eta sardan joateko gerrako ontzien babesean. Euskaldunen erantzuna: Naiago degu bakarka eta librean joatea. Eta alaxe joan ziran ogeita amar urtean zear.

Baña, 1566'an Felipe II'ak agindu zorrotza eman zien: ondo armatuta joateko ontzi bakoitza eta lapurretarako eskubide guztiakin. Arrapatzailea arrapatuta gertatzen zan maiz. Nazio arteko gerra zegoen eta gerra ura Kanada eta Terranoba'ko baztar guztietara zabaltzen zan. Ingelesak eta Holandesak ziran euskaldunentzako etsairik txarrenak eta euren eraso-aldiak maiz artzen zituzten; baña, eman ere bai. Onetan ez ziran motz gelditzen.

Indioekin ar-emanetan lenengo asi ziranak, euskaldunak ziran: udaberrian etorri eta udazkenean joan. Euskaldunek ez zuten besterik egiten. Ez zuten indioen lurrik nai: luna indioena zan.

Baña, zorigaitzez guretzat eta indioentzat Ingalaterra, Holanda eta Frantzia'k beste era bateko pentsamenduak zituzten: lurraren eta itxasoaren jabe egin, nagusitu eta euskaldunak andik bota, indioak menperatuz.

Laister asi ziran eragozpenak euskaldunei jartzen legorrez eta itxasoz. Lenengo frantsez Gobernadorearen lana izan zan, kastor-larru trukea berak beretzat artu, euskaldunei eskutik kenduz. Euskaldunen erantsuna: Gobernadoreak erositako larruen barkua arrapatu, 6.000 karstor-larruekin. Eta aurrerantz gerra euskaldunek bere kasa egingo. Alkarri lapurretak asita zeuden. Alaz ere, arrazoi-bide guztiak euskaldune-

nak izan arren, indarraren arrazoia, etsaiarena zan eta euskaldunak kanpora. Erri txikia izan gera beti eta txikiak kanpora botatzen dituzte atzo eta gaur, an eta emen.

Europa'ko nazio indartsuak (Ingalaterra, Holanda, Dinamarka) bale-arrantza ikasten dute euskaldunen eskutik. Konpañi aundiak sortzen dituzte artarako eta barku bakoitzeko iru patroiz eta iru arpoilari euskaldunak eramaten dituzte. Diruagaitik, erria saldu. Koipeak urtutzen ere euskaldunetik ikasi zuten. Baita arrantzalekuak ere. Aizkenerako, sardako baleak, ainbeste etsai San Lorenzo'ren kolkoan, andik irten eta Groenlandia'tik gora dijoa ifar-aldeko itxasoetara. Bai Ingalaterra'k galerazi ere euskaldunek ara joatea...

Euskaldunen okerrak lendik asita zeuden, Felipe II, "La Armada Invencible" sortu zuenetik eta ara beartu bale-ontzi euskaldun asko, an bertan galtzeko. Frantzia eta España arteko gerrak ez dira sekula amaitzen eta 1653'an Paris'ek Gipuzkoa'ri eratotzen dio, gipuzkoarren aurka lapurreta libre (corso) erabakiz. Eragozpenak bata bestearen ondoren datoz euskaldunentzat. Azkenik Europa'ko gerra baten ondoren (1713), Utrech'eko Ituna'k itxiko dizkigu betirako Kanada'rako bideak.

P.Y.S.B.E. "PESQUERIAS Y SECADEROS BACALAO ESPAÑA"

Utrech'eko Itune'tik 200 urteetara, sortu zan Donostia'n makallautarako konpañia au: P.Y.S.B.E. Lantegia Pasai Doniane'n zeukaten eta asiera 1927'an eman zieten Terranoba'rako bideei.

1.600 toneladako bi barku ederrekin asi ziran: Alfonso XIII, orduko erregearen izena, eta Euskalerria. Amar urteetarako bazituzten sei eta beste bi berri egiten... Orrela eldu ziran 17 ontzi martxan edukitzera. 1973'an kiebra jo zuen. Ontzi bakoitzak 62 giza-semble zitun barruan. Bela-barku antxiñakoak urteero arrantza-aldi bat egiten zuten; auek, berriz, bi aldi.

Euskaldunek ez zekiten makallau-arrantzan egiten eta bretoñak ekarri zituzten lan orretarako. 42 bretoin, arrantza-patroiz ta guzti, barku bakoitzeko eta besteak emengoak. Alfonso XIII ontziaren kapitana Eustakio Arrinda, nere aita zan eta 50 kanpañatik gora egin

EDESTIA

zitun PYSBE'n. 70 urterekin utzi zion itxasoari Kanada'n pulomoniakin gaixo egonda gero. Nere aita il eta andik zazpi urtera porrot egin zuan bere bizitzako Konpañiak.

Bretoiñak izan ziran gure maixuak eta ez euskaldun zaarrak: aiek legortuta ekartzen zuten arraiña eta bretoiñek, berriz, gazituta gordiñik. Orregaitik zeuzkaten Pasaia'n tunelak aize beroakin makallaua sikatzeko.

PYSBE il arren, makallautan dabilzanak ez dira gelditu, konpañi berriak sortu bait ziran PYSBE'ren itzalean eta oiek diraute oraindik 1999'garren urtean.

ITXAS-MERKATARITZA

"La Hermandad de la Marisma" izenekin sortu zuten elkarte bat Castro-Urdiales'en Kantabria'ko lau portu, Bermeo, Getaria eta Donostia'kin batera eta beste portu legor auek, Vitoria-Gazteiz eta Orduña. Merkataritza'rako Elkarte onek itzarmen bat siñatu zuen Londres'ekin 1351'an, 20 urteetarako. Laburdi'ko kaiek ere beste orrenbeste egin zuten Alkarte onekin. Eta alkarren arteko itzarmen aueri eskerrak, euskaldunak euren arteko pake luzea izan zuten, naiz España eta Frantzia euren artean gerratean ibilli.

Tokirik maiteenak merkataritza onetarako euskaldunentzat ipar-aldeko Europa zan: Burdeos, La Rochelle, Nantes eta Rouen Frantzia'n; Brujas eta Amberes Holanda' n; Lubeck eta Hamburgo Alemani a' n.

Mediterraneo itxasoan ere sartzan ziran, Asia Txiki'ra eta andik ekartzen zituzten, seda, espeziak eta Oriente'ko beste zenbait gauza. Alaz ere, itxaso ori arabiarrek itxita eduki zuten 500 urtez.

Amerika agertu zanean, (orduan Mediterraneorako joera aldatu egin zan), Atlantico'ra. España'ko Erregeek Ameriketarako merkataritzaren monopolioa Sevilla'ri eman zioten, beste erri guztien kaltean. Ori ala izanik, euskaldunak Ameriketarako enkargurik nai zutenean, Sevilla'ra jo bear nai ta nai ez... Eta araxe joan ziran.

SAL-EROSKETAK

Gipuzkoa eta Bizkaia'k esnea, sagarrak eta sagardoa zuten ugari eta eskas beste janari guztiak. Bizkaia'ko Fueroak askatasun osoa ematen die bizkaitarrari bizitzeko bear dituen janariak nai duten tokietan erosteko ala saltzeko: "vitualas que les vienen de Francia, Portugal, Inglaterra y otros reinos". Gipuzkoa'ko Fueroak, berriz, eskubidea ematen die gauzak ekartzeko "de cualquiera Reynos extrangeros".

Janaria falta ez zedin Fuero Zaarrak agintzen zuan Bizkaia'ra datorren kanpoko ontzi guztiek curen kargaren erdia, emen saldu bear zutela.

Saltzen zutena: burni-meatzak eta burnia, bale-koipea (XVI-XVII), artilea eta barkuak. Erosten zutena: aleak (garia batez ere), aragia, oialak, arraiña, ambar eta Europa-iparalde eta Oriente'ko gauzak.

Garrantziko kaiak ziran Bizkaia'n Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa; Gipuzkoa'n Deba, Donosti, Ondarribi; Lapurdi'n Doniane Loitzun eta Baiona. Baña, danen artean lenena, batez ere bere "Consulado" sortu ezkeroz, 1511'an, Bilbao (Portugalete) izan zan. Portu orretatik sartzan ziran Ifar-Europa'tik etortzen ziran merka-gai geienak. Brujas'en (Flandes) gendukan "Consulado" bat XV'garren eunkadatik onuntz.

"Bastimentos por hierro" da euskal legeen leloa. Beti bat. Burniaren truke, janari eta merka-gai guztiak, esnea eta sagarrak besterik ematen ez zuten lurra, aberats gertatzen da truke orreri esker. Burni-meatzak zeuden Zuberoa'n, Gipuzkoa'n; baña, benetako meatzak Bizkaia'n zeuden, Bilbao'ren inguruan. Somorrosto'ko meatzetatik irten oi zuten etenik gabe Europa guztiko portuetara meatzez betetako ontziak; gerora, Ameriketara ere bai... Balmaseda'tik aurrera doaz meatzez edo burniz betetako mandoak Kastilla'ra bidean...

Burni euskalduna alde guztietara irtetzen zuen: Legazpia'k, e.b., burni ona egiten zuan Kastilla, Portugal, Ingalaterra, Flandes, Alemania, Italia, Afrika eta Ameriketarako... Nantes portuan, XVI'garren gizaldiaren erdi-aldera, sartzan zan burniaren eunetik larogeita amarrak Bilbao, Mondragoi, Zestua eta Balmaseda'koa zan. Baiona ingelesa zan 1152'tik 1451'era, eta bera zan tarteko Bretaña Aundia, Normandia eta Bearne'rekin... Baña Euskalerra'ko burni-merkaturik aundiena Europa'n Brujas eta Amberes'ek osatzen zuten.

Burniz beteta Normandia'rako irtetzen zuen ontzia, itzulian gariz, urdaiez, arraiñez, oialez goraiño etortzen ziran Deba, Mutriku eta Ondarru'rako; alaxe gertatu zitzaion "Katherine" ontzi bretoñari, 46 tonelada gari, 500 barrika koipe, 4 pipa arraiñ eta 18 pieza oial zuri ustu zitun Deba, Mutriku eta Ondarroa'n; eta 507 kintal burni eta sei aingura aundi eramán zitun ordañetan.

ARTILLEAK

Naparroa'ko (Salazar, Erronkari) artilleak, sei arrobaka lau edo bostmilla sakak irtetzen zuten. Kastilla'ko artillea, berriz, merinokoa bi alditan galeztiagoa zan, naparra baiño; zazpi milloi kilo bialtzen ziran betiko tokietara, janarien eta batez ere oialen truke. Naparro eta Aragoi'ko artilleak Baiona, Ondarrabi eta Donostia'tik irteten zuten. Araba, Errioxa, Bizkaia, Kastilla eta Naparroa'ko zati baten portua, Deba zan.

Bilbao'tik irtetzen zuten burni eta artilleak, Europa'rako eta abar, beti jeneroz beteta etortzen ziran: frutak, xaboi, piperra, kanela, olioá, Burdeos eta La Rochele'ko ardoak, oial gordiñak Flandes'etik, zuriak Bretaña'tik, arroza, almendrak, datilesak, India eta Irlanda'ko larruak, garia eta sekale... Bilbao'ko kargamentu auek beste euskaldun portuen antzekoak ziran.

BARKUGINTZA

Itxaso-merkataritza zabaldu ala, barku geiágo bear eta barkugintza ugaritu zan. Itxas-ontziak izan ziran merkataritzaren beste zati eder bat euskaldunen artean. XIV'garren gizaldian itxasoak, lapurrik gabe, lasaitu ziranean, gure uraren ertze guztietan sortu ziran ontzi-olak. Gipuzkoa'ko Foruak dionez kostalde guztia astilleroz beteta dago, eta aietatik sortzen dira "Capitanas Reales Armadas" eta gerra eta pakerako ontzi klase guztiak.

Portugal eta España bat egin ziranean, 1580, España zan mundu guztiko indartsuena itxasoz eta Peninsularen Ifarra-aldean Europa'ko astilleroa biurtu zan. Ingalaterra'ko errege, Frantzia'ko duke, zaldun anda-

luz eta italiar, guztiak zetozen Euskalerrri'ra euren itxas-ontzi-talde osoak, edo banaka, billatzera.

Kañoi eta arma mota guztiak bear ziran gerrarako barkuetan eta arma oiek moltsoka saltzen ziran jan-edanén truke. Lenágo ere esanda daukagu Plaentzi-Soraluze izan zala, Bilbo, Mondragoi eta Orbaizetakin batera, arma oien sortzaillea.

ITUNAK ETA BURRUKAK

Londres'ekin itunak eta burrukak etenik gabe ibilli dira bata bestearén ondoren.

1306'ean egiten da pakea bi urterako. Muga baño lenágo Erregea kexaz ari da euskaldunek iru ontzi aberatsak lapurtu direlako.

1309' an berriro itzarmenak.

1324' ean, Ingalaterra eta Frantzia alkarrekin gerran, euskaldunak tartean direla.

1344'ean, Ondarrabia'an, pakezko ituna berriro ingles eta euskaldunen artean; baña, ontzi euskaldunek eraso egiten die ingelesai eta ondoratu ere bai.

GERRA

Azkenik, Eduardo III'garrenak, euskaldunak ingelesén merkatu-bideak atzemángo zioten bildurrez, gerra egiten die. Burruka, Ingalaterra'n bertan izan zan, wmcneisea l.,iih.f.n, » kaldunek (1) (gipuzkoarrek) 26 ontzi aundi galdu zituzten; alaz ère_l merkataritzari erasotzen jarraitu zuten. Azkenik, aspertuta errege ingelesak "Tratado de la Torre de Londres" izeneko ituna prestatu zuen 1351'eko abustuaren 1'an. 20 urteko pakea barku ingelesén eta euskaldunen artean.

Gañera itun orretan baimena ematen zien gipuzkoarrei Ingalaterra eta Bretaña'ko kostetan arrantza egiteko, bear diran petxak ordaindu ezkeroz. Ori bakarrik ez: Kastillako ontziren bat arrapatuta, baldin euskaldunei kendutako jeneroa ba'lekar, bereala ekarriko zietela.

Lapurdi ez zegoen itun orretan sarturik eta eurokin berriro egin zuten, Londres'ko itzarmena betirako siñatuz Ondarrabia'n 1533'garren urriaren 29'an. Bizkaia'k bat egin zuen bi illebeta beranduágo: Bil-

EDESTIA

bao, Bermeo, Plentzia, Lekeitio eta Ondarroa'ko erre-presentanteak izenpetuz, abenduaren 21'an. Onartu zuen Ingalaterra'ko Erregeak ondorengo urtean, uztaillaren 9' an.

Deba'n izenpetu zuten beste pakezko ituna Ingalaterra'rekin irailla'ren 26'an, urtea 1473. Alde batetik Gipuzkoa eta Bizkai'ko ordezkariak eta bestetik enbajadore inglesak.

1481'ean berriro ere itunak, Gipuzkoa eta Ingalaterra'ko enbajadoreen artean, Usarraga'n. Urrengo urteko martxoaren 9' an berriro itzarmena pakearekiko eta alkarren laguntzarako: baldin Ingalaterra Kastilla'rekin gerra egingo ba'lu, gipuzkoarrek geldirik egon ditezen ingelesai okerrik egin gabe.

Ainbeste itun eta itzarmen artean, nabari da azpitik itxasoko lapurreta ugari dabillega; alan be, pakezko ar-eman oiek, itxasoko merkataritza ugalduta eta sendotuta egin zuen euskaldun eta ingelesaren artean. Beste aldetik, berriz, begibistan dago Euskalerra'ren itxasoko indarra; Ingalaterra bera ere makurtuta euskaldunekin itunak egin bearrean... Kastilla'tik alde... Beti izan da, izan ere, euskaldun merkataritzaren ardatza, burnia.

EUSKALDUN ITXAS-LAPURRAK

Urteetan zear itxas-merkataritzarekin batera sortzen dira itxas-lapurrak. Wikingoak izan ziran itxas-lapurrik zaarrenal, eta 5 gurrenax: baña, euskaldunak ere ikasi zuten bide ori. Oraintxen ikusi degu Londres eta Gipuzkoa'ren arteko itunak eta itzarmenak ia etenik gabe... Apurtzen ziralako, berritu bear.

Arazo au Kanada eta Terranova'ko arrantzek larritu zuten sekulan baño geiago. Arrantzale asko il zan lanean eta sepulturak ere agertu dira baztarretan. SUI-GARAICHIPI batena be bai Plaentzia'ko illerrian. Bi itz merezi ditu "Corsario" famatu onek.

"SUIGARAICHIPI, DIT CROISIC"

Baiona'ko Galuperi kalean jaio zan 3'garren zenbakian. Asiera itxaso-lanari merkataritzan eman zion. Garai latzak ziran itxasoan: merkataritza laga, berez ausarta da eta lapurretan astea erabakitzen du. Lagu-

nen laguntzarekin fragata bat armatzen eta lapurretarako baimena ("patente de corso") lortzen du espagnol eta holandesen aurka irteteko. Bere garaipenak ikusita Baiona'ko Gobernadoreak sozio bezela artze-ko eskatzen dio. Ori bakarrik ez, beste kapitana askori eskatzen die, lapurretan asteko espagnol itxaso-merkataritza ondartzeko...

"Gazete de France" aldizkariak Suigaraichipi onen berriak dakarzi xeetasun guztiekin. Ona zer dion: "Ilbelta 1692: bi urte il aurretik, irten du bere "Legere" fragatakin Baiona'ko barratik eta topo egin du aurrez-aurre "Princese" ingles gerra-barkua-kin. Onek 64 kañoi zitun eta fragata ariñak, 24 geie-nez. Fragata batek iru masta zitun galeoien antzera eta karabela baten arintasuna. Oneri eskerrak eta kapitana-aren ausardiari, barku inglesa Baiona'n sartu arazten du. Erregearen talderako saltzen dute eta bera, Erregearen "capitán de fragata" izendatzen.

Andik urtea betetzera, "Aigle" fragataren kapitana degu eta Spitzberg aldera bialtzen dituzten bi euskaldun, bera eta Harizmendy, au "Favori" fragatako kapitana. Fragata auek 300 tonelada dute bakoitzak, 26'ña kañoi eta 250 gizon barruan. Taldearen barku nagusia ("buque insignia") "Pelicane" 50 kanoiduna eta Saint Malo'ko kapitana. Beste barku bat ere bai, Saint Malo'koa ura ere. Laurak dihoaz taldean, holandesak eta ingelesak ondoratzen Groenlandia'tik Spitzberg'era bidean. Ekainaren 20 irten dute; andik illebetara cidU dira 63 paralelora. Berandu baña lenago Spitzberg'era igo bear dute; baña taldearen buruak ez du nai gorago joaterik; joan ditezela bi euskaldunek euren fragata txikiekin.

Uztaillaren 29-31: danes barku batzuek arrapatzen dituzte; baña, libre laga. Eta zazpi holandes. Abustuaren 1: Sugairaichipi izotzetara sartu da eta bi holandes preso artu ditu eta bat ondoratu. Beste 50 aurkitu ditu izotzez inguraturik. Joan dira billa eta abustuaren 6' an, lañopean, zazpi arrapatu dituzte bien artean. Argitu duanean, lur-mingain bat ikusten dute kañoiez eta holandar ikurriñez; urbidu dira eta kai batean 40 ontzi alkarri lotuta, euskaldunen zai. 12, 13 eta 14 kañoi dute bakoitzak. Eta 45 gizon barruan.

Kañoika bost orduan jardun dute eta 16 ontzi arrapatu; besteak alde egin dute zirriztu batetik, txalopekin atoian. Amaika gorde eta besteak erre... Orrela agertu ziran errian.

Urrengo urtean, 1694' an, etorri zitzaion eriotza, Terranoba bertan eta bere illobia an dago oraindik, bi zatitan ba'da ere. Onela dio: "CY-GIS JOANNES DE SUIGARAICHIPI DIT-CROISIC-CAIP AINE DU RAGATE-D-ROY. 1694". Burrukan il zan. Illarri geiago era badaude. Baña, askoz ere geiago falta. Orain urte gutxi dirala, aurkitu dituzte arrantzaleen gorpuak, bederatzi alkarri eantzita, otsak ilda. Izotak moltsoka eraman ditu beste mundura. Astirik ez zien eman andik irtetzeko; beste barrikatxo bat geiago ekarri nai etxera... eta aizkenean danak an bertan utzi bear...

Bale-arrantzak asko eraman ditu aurretik, bai Kanada'n eta bai bertan ere. "Deba" aldizkarian, Negua 1990, datozte berri batzuek eriotz aueri buruz. Elizako Iladakoaren Liburutik artuta daude: "Urriaren 6'an (1610) balearen billa irtenda, etortzerakoan lau gizon ito dira barran: Marco de Arpide, Domingo de Arzuriaga, Juan Garcia de Yrelus, Miguel de Arrarte". (Folio 262 del Libro de Difuntos).

"Berri etorri zan Terranoba'tik Donostia'ko barkua ondoratu zala eta bertan il ziran Antonio de Arias eta Antonio de Izaza" (27-I-1610).

Juan de Arrarte'ren eriotzaren berri etorri zan, Terranoba'n illa balearen arrantzan "de un golpe que recibió al lagar o txuxar para el derretir de las ballenas". (26-IX-1662).

"Balearen arrantzan, bat zaurituta, estatxak (sokak) Nicolas de Garate eraman zuan aurretik". Bale zaurituak eraman zuan. (Abustua 1664).

"Urriaren 13' an, 1613' an, etorri zan berria Terranoba'tik, nola Donostia'ko galeoi batean, indioek il

zituzten Lucas de Andonegi eta Juan Martínez de Chisto beste barku bertako iru lagunekin". (13-X-1613). Bear ba'da euskaldunek eskimalekin zeukaten burrukaren ondorioa izango zan. Gerra orrek eun urte iraun zuen.

Suigaraichipi kapitanak eriotzari buruz itz egiteko aukera eman digu; baita, itxaslapurrei buruz ere. Euskaldunek ez ziran motz ibilli, luze eta zabal baizik itxasoko lapurretetan. Aitatzekoa da Nantes'eko uriaurreko ugarte txikibat.

PILIER UGARTEA

Loira ibaia itxasoan murgiltzen dan aurrez-aurre ugartetxo bat dago: 600 metro luze eta 150 zabal, muñorik gabea eta eskua bezin laua. 200 urte baño geiago izan zan itxas-lapur euskaldunen egoitza. Andik ikusten zituzten Nantes'ko portura sartu eta irtetzen zuten ontzi guztiak. Lapurretan egiteko aukera oberik ezin. Itxasoan eta ez portuetan, lapurtzen zituzten. Legorrera lapurretan joateko txalopak erabiltzen zituzten... Andik ezin izan zituzten bota: baña Frantzia'rekin pakcak egin da gero, 1693'garren urtean, orduantxe alde egin zuten Pilier' etik.

1172'an Cister'eko monjeek jaso zuten komentu bat bertan; 1200'garrenean, ordea, bertan beera laga zuten, eragozpen aundiak zituztelako jan-edanak bertara karreatzen. Gaur egun faroa zaintzen duen famili bakararra bizi da bertan.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ASTO BATEN ASTA-PENAK (1969)

I

— Astoa naiz. Astarra. Ogeita amar urte bete berriak. Asto zaarra.

—Aizu, Periko, egeita amar urte ez dira aldi luze...

—Zertarako dan. Astakeriak esan eta egiteko, naikoa. Zenbat astakeri esan eta egin ditezken aldi orretan, kontuan artzen al dezu...?

Bai, bai. Ori ere ala da.

—Jalo ezkeroz, Iñaki bat izan det nere jaun da jabe: kopeta aundi, euskaltzale purrukata. Ez du erderarik erabilliko ezertarako ere, oso beartuta ez bada. Ikullua daukat kale-barrean eta aldamenean nere nagusiaren sagardotegia upel eta guzti. Ogeita amar urte jaio nintzala guda madarikatu bat amaitzean eta orduko nagusiak dirau oraindik... Noiz arte? Galde egiten du Iñaki kopeta-aundiak.

—Orixe galdetzen degu guztioak, Periko.

—Ba, oraindik, puska baterako zaudete. Orregaitik edo, alkartzen dira sagardotegian nere nagusia eta bere lagunak. Zeru eta lurak aztertzen dituzte eta arakatzen. Euskeraren egoera maiz aitatzten dute eta aren auzi-mauziak ondo ezagutzen ditut. Egoera larrian omen dago... Esaten duten guztia entzuten det ikuillutik. tartean ol zaar batzuek besterik ez bait dago: zirrikuetatik ikusi ere ikusten ditut. Zenbat alkarriketa berritsu, zenbat eztabaida gartsu, zenbat asarre eta trumoi... Euskalzaileek ez dute alkar artuko sekula sekulotan.

—Orrenbestez...!

— Bai, jauna, orrenbestez. Bakoitzak bere astoari arre. Ori esan zuanak bazekien euskaldunen berri.

— Gaitz ori ez da euskaldunena bakarrik izango...

—Orixe bai nik ez dakidala. Emen agertzen diranak guztiak dira euskaldunak. Bestelako belarrimotxik ez da emendik sartzen. Danak dira ni bezelako belarri aundikoak. Ondotxo ezagutzen ditut. Goiak eta beiak jotzen diuzte; ezeri ez diote barkatzen. Ara esango dizut joan dan astelenean gertatutakoa. Pelis Txorta eritegitik zetorren, Donostian gaixo egonda gero eta bertako lagun batek esana agertu zigun. Istorio latza.

Horno homini lupus: gizona gizonaren arerio.

Bi oge zuri burnizkoak. Leio zabal bat ezkerrean; bi gaueko-
mai eta bi aulki. Nere aldameneko ogea utsik dago. Bost egun
daramazkit ospitalean. Seigarren gaua. Gau-erdian gelako
argiak piztu dituzte. Lausoz eta lo-alez betetako begiak iriki
ditut. Baiña, zer da au...!? Bi moja, bi sendagille eta laguntzai-
lle bat sartu dira barrura eta eurokin batera gizona zerraldo
baten etzanda dakarte. Etxetik zuzenean ekarri ere, lotarako
pijama kentzeko astirik gabe...

Elektrokardiograma aiñako guztiak egin dizkiote oge
barruan. "Infarto de miocardio" aditu dut euren arteko mintzai-
ran.

Eguna argitzearekin batera, sendagille gazte bat agertu zai-
gu aurrean:

—Zure izena?

—Juan Termosil.

—Nungoa zera?

Andaluziakoa.

—Nun bizi zera?

—Emen Donostian.

—Zer lan egiten dezu?

—Nere kontura nabil gauza-karriotan.

Esan bear det aurretik, berarekin batera beste bi anai etorri
zirala. Aundiak. Arpegi zabal eta bekoki illun. Golde-arrastoak
aurpegian. Zimur gogorak. Asko eramandako giza-
semeak. Zamarra lodikote eta motzak. Lepo-ingurua larruzkoa. Oge-
aurrean daude zutik. Medikiak:

Zenbat anai zerate?

— lru.

—Aita bizirik al dezute?

— Ez.

—Zerk eraman zuen beste mundura?

Gaixoa gelditu da erantzunik gabe. Aurrez-aurre daukan
anaiari begiratzen dio. Kiñu egiten dio buruakin, baietz: esate-
ko, alegia, zerk eraman duan:

—Goseak.

Oraingoan mutu gelditu dana sendagillea izan da. Geiago
galdetzeko ausardirik ez...

Goizeko zazpiretarako ekartzen digute izparringia gelara;
baiña nere aldameneko oneri ezer ez irakurtzeko agindu zion
medikuak eta itzik ere ez aotik ateratzeko... Gerora, ordea, gau-
zak argitu dira: biotzekorik ez du ezer.

Eritegietako ordu luzeak: danetarako dago asti eta denbora.
Itz-jario asi zitzaidan: Andaluziako lurralde zabaletako bastar-
txo batean jaio zan, kortijo oietako batean:

—Bizia eta eriotza jauntxoan eskuetan genduzkan.

—Ainbeste!?

—Bai, ainbeste. Zerorrek ezagutuko dezu, nere etxearen
berri emango dizudanean. Nere bi anaiak emen izan ziran.

Gizon galantak.

– Ni naiz zaarrena eta aita nola il zitzaigun entzuna dauka zu.

– Gogorra benetan.

– Bai, oso gogorra; baiña egi utsa. Aita gaixorik gendukan eta ni nintzan etxera ogia ekartzen zuan gizaki bakarra. Beizaia nintzan. Lurrean billatzen nituen paperetatik ikasi nuan irakurtzen; ez bait zan guretzat eskolarik. Anaiak gaztetxo eta aita gaixo. Emezortzi urte betetzean, pezeta bat geiago egunero irabazteko eskubidea eman zidan legeak. Egun artan pozik zorutzen agertu nintzan nagusiarengana: -Zer nai? -Ara, jauna, gaur bete ditut emezortzi urte eta gaurtik daukat eskubidea pezeta bat geiago irabazteko... -Bai, e...? Orregaitik ez kezkarik izan: zure lan ori zuk baiño pezeta bat merkeago zeñek egin, emen ez da faltako...

– Erantzun zitala.

– Egun artan galdu nuan gure etxeko ogibea. Egopetik estutzen dezun txoria bezela gebiltzan danok etxean, ito bearrean... Andik laister aita aldendu zitzaigun, goseak eraginda. Berrogei urte betetzeko bat falta.

– Egoera larria...

– Bitartean soldaduzka egiteko garaia eldu zitzaidan eta uraxe izan zan nere askatasunaren ordua. Ondo jantzi eta ondo jan. Gizendu nintzan eta gizondu. Baita begiak iriki ere: bazirala, alegia, gure kortijotik at makiña bat lurralde zabalik munduan.

– Soldaduzka eginda, kortijora etxeratu al ziñan?

– Zoroak emanda ere ez. Ez naiz ara geiago joan. Neure lurra ogi eskasa eta mingotza eman dit jateko. Gizarteak oinpean eduki gaitu zapalduta. Ez diogu zorrik. Geran apurra geure indar utsez egin degu. Ez jakiñean eta nekepean erabilli gaitue... Zer zor diogu gorrotoa ez bada...?

– Eta, nora abiatu ziñan?

– Iñora ere ez. Emen, gaur bizi naizen erri onetan egin nuan soldaduzka, asi nintzan lan billa eta ostatu batean eman zidaten nere lenengo ogibidea.

– Zer lan?

– Boteilla utsak ardoz bete. Sei urte amaigabekoak pasa nitun bodega illun batetik irten gabe, kaleko argirik ikusi gabe. Astegunez eta jaiez.

– Gero...?

– Diru apurtxo bat egin nuanean, berriro lan-eske. Arakin batekin gelditu nintzan morroi. Andik errekarero batengana jo nuan eta ofizioa gustatu. Arekin gelditu nintzan eta gerora neure kontura asi.

– Ondo, beraz?

– Lan-bide onen zirrikitu guztiak ezagutzen ditut eta nere anaiak ekarri ditut sozio.

– Guztientzako lanik, bai?

– Nai-aiña lan izanen degu. Aundikiro jokatu bear. Ezagutzen ditut Madrid eta Bartzelonako merkatuak. Erroman eta Paris'en izana nauzu ango merkatu zentralen berri jakiten...

– Etorkezuna zuekin dezute, noski...

– Zalantzarik gabe. Elburua badakigu eta bideak ezagutzen ditugu. Gogo eta indarrak ez zaigu falta.

**

Garraioari merkataritza erantsi zioten Termosil Anaiak eta konsumo-elkartearantzat ekin zioten lanean. Burruka berriro. Latza eta kupirigabea:

– Ara, egun batez nere furgonetarekin nengoan kale-ertzean eta "kanpora emendik" esan zidan gure etsai baten langilleak. "Berebil au nerea da eta badet emen egoteko eskubidea ere" erantzun nion. "Begira izenari"... Baiña, aren erantzuna zer izan zan badakizu...?

– Zer?

– Kamio zaar aundi batekin nere furgoneta itzuli barruko langostino guztiak lur-gaiñera goteaz. Guztiak alperrik galdu ziran. Aste osoan irabazitakoak, une artan galdu...

– Erreklamazioa egiterik izan zendun?

– Lagun ezagunen gana jo genduan justiziaren eske; baiña, jauntxo nor zan jakitearekin batera, alde egin ziguten. Bildurra zioten: baiña gu bildurtuko gaituen kristaurik ez da jaio oraindik.

– Zer egin zenduten?

– Gau artan jauntxoak zitun kamioi guztien kurpillak ondatu. Lana eragotzi eta bien bitartean errespetoa sartu.

Ekintzak ugaritu ala, lan aberatsen billa saiatu dira. Sare osoa zabaldu dute bere inguruan: akarioetatik bankuetara, merkataritatik "club"etara, alkoetik marijuanara, morfinaetik emagalduetara... Olkiak ordaiñetan: eurari gizarteak egindakoa gizarteari itzuliko die...

Beuren jabetasuna geroz eta aundiago. Iru Anaiak piñuazieran antzera zeuden elkartuta. Irurak bat. Gogorrean aziak, gogor artzen zituzten mendekoak. Pozoia zeukaten gorrotoarekin naastuta eta pozoia gaztediari sartzen saiatu ziran eta gaztedia, artalde baten antzera, arakiñen eskuetan erori arazi arte.

.....

Eritegiko egunak aaztuta zeuden. Gaztedia menpean, lur eta mendiak menperatzeko oraindik. Elikoteroz ekin zioten lurraldeari begira bat ematen. Zoragarriak zeuden mendiak eta ibarrak: gaillurretan aitzak gorri, nabar-kolore: beerago baso opa-roak orlegi-illun; azpian larrainak orlegi-bizi. Errekak marmarrean garbi eta aize meea biriken pozgarri...

– Madarikatua! Or pozik bizi dituk...! Goazen ara: mendiak ordekatu, ordekatu bete, aizea kireztu, ura zikindu, bizitza gogortu; bitartean urte guztien jabe geu eginen gaituk.

Gauza bakar bat falta zitzaien: politika-agintaritza. Aalmen lilluragarri orren ondoren asi ziran. Demokrazia etorria zen ordurako eta agintaritza erriaren eskuetara etorria. Auteskundeak egin ziran euren mende zegoen zabalkunde osoa, bai radioz eta bai telebistaz. Aldezkarietatik, zer esanik ez. Indarrez lortu edo diruz erosi botoak... Azkenik:

– Lortu diagu nai genduena. Orain erria ordenan jarri. Ez iñork ankarik mogituko gure baimenik gabe.

Lagunek ugari sortu zitzaizkien gorroto eta gogortasunerako prest. Illerriko arri zabalak garbi oso, Termosil Anaien erria iduri: oso txukun, oso apal, oso menpeko. Biotzak eta buruak koi-pearen neurrira bigunduta, idien antzera mantso-mantso, gizatasunik gabe.

– Gizatasuna geuk daukagu eta ori naikoa. Pailasoak eta ogia, orra auek bear duten gauza bakarra. Ez dute besterik bear.

KONTU KONTARIA

Taldea pake santuan eta ordena bereizian. Zoragarri. baten pakea. Arrak, atsa eta ustelkeria azpitik zebiltzen.

Zimaurtegiarik aundienean ere loreak sortu oi dira noiz-beinka. Egoera orren aurrean, "Danen Aurka" gizasemea jeki da:

Ardiak arategira bezela zoazte: illea mozten dizute, esnea jeisten, lukainkatarako aragia ebagitzen... Jeiki zaitezte! Ez al dezute zuen zoritxarrik ikusten? Konortea galdu al dezute?

Ardiek begiratu apala egin diote. Alperrik da. Entzungogor daude, ez aalmen eta ez gogo. Ez dute ezer. Drogari emanak daude. Menpean bearko.

Gizartetik artutako iraiña gizarteari biurtu diote Termosil Anaiak. Eta, gañezka.

.....
Pelis Txorta ixildu zanean, maikide guztiak asi ziran batera:

—Baiña, ori zer da, gertakizuna ala asmakizuna?

Nik ondo ez dakit zer dan. Nik ez nituen Termosil Anaiak ezagutu; baiña, eritegian entzun nuen istori ori. Erdizka beintzat egia dala badakit; asmakizuna norainokoa dan, orixe ez dakit... Bear bada, profetaren bat ere bada tartean.

Ekin zioten oraindik ere eztabaidan gaztain erreka amaitu arte. Berba-jardun aretan eutanasia atera zuan batek platerera. Eutanasiarik egiten ote zan eritegietan, alegia. Berandu zan artan asteko eta Anton Kaleri eskatu zioten gaia urrengo baterako prestatzeko. Bait ba, Anton Kale Arantzazun praille egona degu eta teologia ere ikasi zuan. Zeiñek obeto? Sagardo-baso bana eran zuten eta alde egin, ni nere ikuilluko pakean utzirik. Bazan ordua. Ez didate nai aiña lorik egiten uzten eta biar nere jaun kopeta-aundi orrek naiko du ni lanean eduki errementa arte. Egunen batean nik emandako ostikara pareakin illargiraiño bialduko det. Gabon.

Eutanasia eta eritegiak.

Gaur larunbata. Taloak eta gaztaiñak erretzen ari dira sagardotegian. Biar lan gutxi: nere ondoko bei onentzako belar apur bat ekartzea. Ori gauza erreza da nere jaun Iñaki ospinduta ez badator beintzat. Arrazoirik gabe makilka asiko balitz, lepazamarretik ainka egingo diot, ortzaka...

Anton Kale betaurreko eta guzti etorri zaigu. Gaztaiñak erretzen ari diran artean, paper zuri batetik asi da irakurtzen. Besteak ao zabalik daude bere inguruan. Onela asi da Anton Kale.

Eutanasia itzak zera esan nai du: nekeetan dagoen gaixoa iltzea, eriotza zuzenean dakarren zer-edo-zer egieñez. Orrelako eutanasiarik, zuzenean gaixoa erailtzen duena, ezin liteke ino-laz ere onartu. Orrelakorik onartzen bada, orduan gaixoak ez du uste onik izango bere sendagillenganako; ez bait du jakingo zertarako diran botikak, arek emandakoak, sendatzeko ala iltzeko.

— Bai, bai, ala izango dek-zion Praiskuk.

Eutanasia ori gaixoak berak eskatuko balu ere, gogo orreri amor ematea, gaixoari bere burua iltzen laguntzea litzateke.

Ezin liteke orrelakorik onartu. Eutanasia (eriotz-ona) erailketa onean biurtzen degu, orrela jokatu ezkeroz.

Eutanasia beste era batera ere artu genezake; baiña, orduan ez da benetako eutanasia. Ortik sortzen dira naiko naaste. Esate baterako, gaixoari sendabide oso gaitzak eta kostosoak ukatzea; edo-ta miñak kentzeko lo-belarrak ematea naiz-eta bide orretatik gaixoari bizia murriztu... Bide oiek erabiltzea ez da benetako eutanasia. Garbi erabilli leizke barruko kezkarik gabe.

—Ori ere bizia kentzea da. Ez al dira bi eutanasiak berdiñak? (Anton Kalek).

— Ez dira berdiñak: lenengoan gauza bat ematen diogu zuzenean ilko duena; bigarreanean, berriz, osasun-biderik ez duen biziari alperrik luzatzen ez diogu uzten; bide kostosoak alperrikakoak diralako gaixo orrentzat eta familiarako ondamendia; ori alde batetik eta bestetik, berriz, lo-belarra emanda miñari aurpegi ematen laguntzen diogulako eriotza xamurragoa izan dezan. Irten-biderik ez duten gaisoeri buruz ari gera.

—"Dakixenak bakixela" esaten ditek Lekeition eta ala izango dek.

Eriotz ona.

Iltzeko era eta modu on baten eskubidea badu gizakiak, iltzeko era onik arkitu baliteke, beintzat. Gizon-emakumeen eriotza gizaki-maillakoa bear du izan eta eriotz-mota orreri esaten diogu Eriotz Ona. Erderaz Muerte Digna esan oi dana.

—Orain urte gutxi dirala, jenderik geien -zion Pelix Txortaketxean iltzen zan; orain, berriz, iñor ez da etxean iltzen. Geienak ospitaletan.

Aurrera doa Anton Kale:

Egoera zero aldatu da gaixoeri buruz: gaurko eritegietan jende-multsoa biltzen da artaleen antzera. Berdin sendagille eta beste laguntzaille guztiak. Danak talde aundia osatzen dute eritegi bakoitzean. Eta gaiko bakoitza egunero askoren eskuetatik pasako da; baiña iñortxok ez du izango gaixo orren norkiaren ajolik. Zaintzailleen erantzunkizuna taldean urtutzen da eta gaixoa gelditzen zenbaki edo numero bat besterik ez dela, nortasuna galduta eta zerki bat bezela. Zerki interesgarria ala arrunta; baiña, zerki uts bat bezela (caso clínico). Eritegi batean gaixoa ez da norki bat izango, persona bat izango, bere senide eta lagunentzako ez bada.

Eritegiak, osategiak, hospitalak teknika-bidea dute begien aurrean eta ikuspegi orretatik datorkie aurrerapena; goxotasunik, maitasunik eta gizakitasunik babe, ordea. Gai onetan ez du iñork an ez erantzunkizunik, ez ardurarik ere.

Millaka gaixo dituen eritegiak fabrika baten antza du: teknika onarekin lana saillean eta errege egiten da; baiña, sendagille bakoitzak gaixo geiegi ikusiko ditu egunero eta gaixo bakoitzak sendagille eta erizai geiegi... Danen artean gaixoa utziko dute bere bakardadean bakarrik. Bere bildur, bere pena, bere buru-auste, bere larri-aldiekin... bakardadean bakarrik. Eta jendez inguraturik egon arren, eriotza etorriko zaio ixilka bere bakardade artan.

Hospital aundi batean azterketa bat egin zuten erizaiñen artean. Galdera auxa zan: -Nun nai zenduke il? Eta geienen

erantzuna: -Neure etxean, neure senitar-tean, lagunez inguraturik; ez beintzat onelako eritegi batean.

Elkarteak du errua, beste bideak baztertuz, teknika-bideetan bakarrik dabillelako. Sendagilleak, eurak ere, ez dakite zer egin il-zorian daoenarekin lo-belarra ematea ez bada: konortea kendu eta burua galdu-erazi... Beste erremediorik ez dakite ez medikuek, ez beste erizaiñek ere.

Soka orretan sartzen dira, bear bada, ara joaten diran senitar-teko eta lagun-ek, kapellauak berberak ere tarteko direla. Hospitalako giroak, moltsoka gaixoak egoteak edo, ez du, mmbait, lan orretan asko laguntzen.

Pelikula italiar batean Sofia Loren agertzen da hospital aundi bateko moja eta berarekin batera erizain komunista bat. Burruka sortzen da bien artean, zeñiek il-zorian gaixoari obeto lagundu: mojatxoak bere otoitzeekin eta otoitza eragiñez; komunistak, berriz, eskutik elduz eta ondoan egonez bere kide-koekin. Bien bitartean aukera kentzen zion mojatxoari, komunisteiri laguntzen etortzeko.

Gaur egun sekula baiño bakarrago iltzen zizkigu gure gaixoak. Larritu orduko eritegira eramaten ditugu eta iñor etxean gelditzen bada, ez dakigu ordu larri oietan laguntzeko zer egin ere, lo-belarra ematea ez bada. Ez dakigu nola lagundu eta zer jokabide erabili.

Illetak ondu dira eta edertu; baiña, il-zorian daudenen laguntza murriztu eginda. Lanik izaten zuten orain urte batzuek parroketako apaizek larri-aldian zeuden gaixoari laguntzen; orain, berriz, gaixoak hospitalera eta bertan iltzen dira geienak bere etxetik eta bere girotik aparte, orixe geien zuten orduan.

Baziran gure erri txikietan zerora antzeko emakumetxoak ere laguntzen doai berezia zutenak, aldi orretan bereziki. Aiek ere galdu ziran... Bearrik ere ez, ez bait iñor errian gelditzen iltzeko...

Gure gizarteak ez dio, iñundik ere, eriotzari aurrez-aurre begiratu nai. Alegiñak egiten ditu eriotza etxean gertatu ez dedin eta, al bada, gorpua hospitalean eduki illeta-ordurarte. Orrela, "gau-illa" egin bearrik ez. Garai batean eliza barruan edo elizondoan zeuden illerriak, urrutira eraman ditugu eta gorpua ixillean eraman gizarte konturatu ez dedin. Ez dezala erioztaren arrastorik begien aurrean ikusi ere.

Gizakia onurak emateko dago munduan jarria eta goi-mailako produktibitateari euzteko. Orretarako gauza ez dana, erditik kendu, ez bait du ezertarako balio... Traste zaarrak ganbarara eramaten dira eta ganbararik ezean, zaborretara bota eta erre.

Eutanasia (eriotz-ona, eriotz-egokia) asmo oietatik sortua dirudi. Baiña, orrela jokatzu "eriotz egokia"ren ordez "ilketa egokia" gerta litzake: esku garbiekin gizakia erail eta geu lasai gelditu... Tranpa-kale. Hospitalak sendategi izan bearrean, erioztegi gertatzen dira: matadero egokiak eta sendagillea, berriz, korridetako puntilleroa.

Gizon-emakumeek gizaki-erara iltzeko eskubidea eskatzen dute eta eskubide orrek eskatzen du, gaixoak bere egoeraren

berri jakitea; naiz-eta egoera ori larria izan. Ezin lezaioke egi ori gaixoari ukatu. Eskubide ori berea du eta bere izateari dago-kiona. Ez jakiñean gizakia iltzen uztea ez da jokabide zuzena. Nork, noiz eta nola berri eman, ori beste arazo bat da. Neurriak artu bear gaixoaren gizatasunaren erara, apurka ala bete-betean esateko; baiña, dana dala, egia esan. Ez dezagula beste aldera bialdu ezeren berri gabe.

Maitasunez eta kristau-fedez fokatu bear da.

Maitasunez eta otoitzez.

Otoitz egiten lagundu. Aldamenean ego, eskutik eldu eta laztandu, berarekin, berak alduen eran, otoitz egiñez... Ori bai dala ondo iltzen laguntzea. Kristauak, ordea, onelako oiturak aztuta gabiltza. Gaixoaren aurrean zutik, ezer egin gabe, larri dagoanari begira... Laguntza eskasa da ori. Orretarako sukaldetan egotea ohea litzake. Aldiko bat naikoa da, gaixoak beste-rik eskatzen ez badu.

Eriotz Ona bide orretatik etorri lezake. Eutanasia, berriz, Erailtza Ona gertatuko da.

Oiek danak entzunda kezkatu gelditu ziran, urteetan aurrera asita bait zeuden. Nere nagusiak ni, Periko Fortuna naizen au, txorixotako salduko nau egunen batean; baiña, bera ere, eta bere lagun-ek, egon dezakete kontuz: euren seme-alabak izan dira saltzailleak. Zeiñek erosiko ditu? Giza-aragia lukaiketarako, miñegia. Ez du ezertarako balio. Lurpean usteltzeko.

II

Zarren erioztatik berrien erioztara pasa ziran etenik gabe.

- Bai -zion Iñaki nere jabeak- gure auzoko Jospinñisiren alaba gazteena Ingalaterrara joana degu.

- Ingelesez ikastera?

- Nungo munduan bizi aiz i, Anton Baxarri? Orretara ez, beintzat.

- Zertara, ba?

- Aurgaltzer.

- Orretarako araiño joan bear da? Edozein atsoak -dio Pelis Txortak-, sorgin oietako batek, egin lezaken lana dezu...

- Ixilpean egiteko bai eta orrek arrisko asko ditu; Ingalaterran, ordea, aurgaltzea legez onartuta dago.

- Nola onartu lezateke ori? Lege ori onartu ezkeru, eutanasia ondoren dator eta orduan, errukarriak gu...

Peru Kirten sartu da sagardotegian eta entzun ditu alkarizketak:

- Zergatik onartu ez? Erri aurreratuenak onartzen dik orrelako lege bat; gaiñera, olatuaren aurre-puntuak diranak, oiek, Erriaren diruetatik ordaintzen ditek lan ori...

- Eta, erriaren dirutik, geure dirutik, ordaindu bear ditugu besteen okerrak...?

- Zergaitik ez? Ori emakumearen askatasunerako da.

- Bere askatasuna iñoren kaltetik, bere seme-alabeen erioztetik... Aitzaki orrek gizona gertatzen da benetako aske...

Iñakik, berea da sagardotegia, auzia erabaki du eta eztabaida ebaki:

- Emen daukat nik euskal aldizkari batean gai oneri buruz idatzi dutena. Arretaz entzun.

KONTU KONTARIA

Aurgaltzea, amnistia eta askatasuna

Kirofanoa.

Illunabarra aurrera doa. Eguzkiak bere urregorizko printzak galtzen ari dan neurrian, gauak bere estalki beltza kokatzen du izaki osoaren gainean... Goizeko izarra agertu ortzian, zearo gau illundu baiño lenago: "Ez negarrik egin eguzkiak alde egin duelako, malkoak ez dizute izarrik ikusten utziko-ta".

Sendagillearen egon-gelan zai dauden iru neskato auek ez dute izarri begiratzeko astirik; gau beltzak artu bait die biotza... Sabelean daramaten aurra galdu nai dute bera ezagutu aurretik, ezagututa gero damutu ez ditezten.

Arratsalde osoa daramate zai. Eurak etorri diranean, gela nezkatoz gainezka zegoen. "Cien mil mujeres siguen abortando en el extranjero- zion 1986garrengo abustuaren 11an Donostia-ko egunkari batek.

Kirofanoan sendagillea eta bere lagunak izarditan daude eta ez bero dagoelako, lanaren poderioz baizik:

— Orratzak! Dio sendagilleak.

Eta orratza eskeintzen diote aurra zirikatzeke. Buruan barrena sartu dio, amaren Sabelean gordeta dagoen aurrari, burnizko jostorratza. Aurra protesta bizian diardu. Ez alperrik. Preso daukate, loturik, amaren sabel biguñean, ain estutuki goixo eta segurua zan sabel orretan. Lotuta daukate; eskapatu ezin etajaio baiño lenago, amaren erabakiz, il egin bear...

Gizon prestua izateko sortutako aurrak, ez du argirik ikusiko. Bere amak eraman du eriotzara. Sendagillearen eskutik. Gizartea sendatzeko prestatu dan gizonak erail du. Zenbat diru txautu eta gastatu ditun gizarteak gizon ori sendagintzarako prestatzeko...! Orretxek erail du ameen seme-alabatoxak.

Aur-galdua eta bere aur-lagunak, oraindik epel eta dar-dar, zikin-potora bota dituzte. Ogei aldiz egindako erailketa egun onetan:

— Gaurko naikoa degu. Aspertu naiz.

Emakume laguntzaillea gerturatu zai belarrira:

— Beste iru daude zai.

— Gaurkoz ez besterik ekarri. Nekez iguinduta gaude.

Aur-galduak eta aur-lagunak kosmetika-gaiak omen dira, emakumearen azala legutzeko eta elikatzeke oso egokiak. Bear bada ama orrek kosmetika-gantza erosten duanean, bere seme-alabarekin egindakoa gerta liteke: eurok lagunduko diote gorputz-azala lirain gordetzen... Zikin-pototik ontzi aundi batzuetara irauli dituzte eta aur-lagunak eten diranean, naaste borrate artan aur-galduak agertu dira eskutxuak gora dituztela, laguntza eske... Ez alperrik Urreak arri biurtu dio gizakiari biotza. Askatasunaren izenean amak, irabaziaren izenean sendagilleak.

Ogei intziri larririk irten dute gaur goruntz gela onetatik, odol errugabe aurren alde justizia eskatzen...

Manifestapena

Aurra galdu duten emakumeak kalera irtetea, manifestaldi batekin topo egin dute kalean: Amnistia orokorra, Presoak kalera, Eiotz-zorrik ez inorenzat... Orra zenbat gauza eskatzen dituzten... Gizon-emakumeek, alkarri eskuak emanez, katea osatu dute. Preso guztiak kaleratu nai dituzte. Giltzapeturik ez. Askatasuna danentzat. Eriotza inorenzat ere ez: eriotz-zorrik ez.

Bat-batean polizikoek agertu dira kale-ertze batetik. Ango anka-otsa. manifestaldikoek kale-zarrera jo dute. Burruka sortu da. Arrika batzuek esku-utsik eta fusillekin besteak pelota eta ke-potoak botatzen... Une batean kale-zaar^a guda-leku zirudien.

Presoak askatu ez eta libertatea kaleetan galdu. Askatasuna eskatzeko aña askatasunik ez da. Gizonak gizona menperatu. Aldunak alduan eran. Goikoak bekoari. Estatuak erriari. Indartsuak ergelari. Norbera libre izateko besteak katepean ipiñi, besteak giltzapetu, besteak zanpatu...

Besteen askatasuna eskatzeko eskubidea badegu. Bai, orixe. Eraille kriminalari ere errespetoa bear zaiola uste degu. Bai, orixe. Eraille-kriminala ez dala iraildua izan bear uzten degu, eriotz-zigorren aurka gaudenok. Bai, orixe.

Baiña, ama batek ere bere sabeleko aurrari indarkeria egiten dio aur-galtzean: eriotzarainoko indarkeria. Kriminal bateri eriotzarik eman bear ez bazaio, nola liteke aurrak beure ameen sabeletan irailak izatea...! Eta, ama bateri eskubide ori ezagutzen...!? Eta ori gizarteak berak ordainduta ... !?

Erailketa

Manifestalditik etxera bildu geranean, orduantxe ari ziran irratia eta telebista, biak batera, berri au ematen: atso xaarra erail zuen gaztea arrapatu dutela, alegia. Aitortu ere aitortu du, beste zapzi atso xaar illak ditula au^rretik.

Bere jokabidea: Pasealekuetan ikusten zitun andratxoengana urbiltzen zan, bakarrik zeudetenean, oso ezagunak balitu bezela. Aurtzarotik ezagutzen zitun. Bere bakardade artan, andratxoa poztu egiten zan orrelako ezaupide batekin eta ar-ematetan asi. Gazteak konfiantza osoa lortzen zunean, etxera joaten zitzaion laguntzera eta denbora pasa. Eraman aundiz jokutzen zuan eta apurka-apurka ikasten zuan nun zeuzkan andratxoak bere dirutxuak gordeta. Aurrezki-kutzak baiño bi aldiz geiago emango zion berak korritu bezela. Eman ere bai. Diruak eta beste gainontzeko aberastasunak bereganatzen zituan, andratxoa baiñura joaten zan batean, sartu eta lepezamaretik elduz, ur-azpian itoten zuan.

Andratxoa etxetik irteten ez zuela auzokoek konturatzerako, pasa oi ziran iru edo lau egun. Bitarte orretan gure gaztea andik urutian beste amonaxo baterekin artu-emanetan asita zegoen...

— Eriotza zor zaio. Dio Fiskalak.

Baiña, eriotzaren aurkako manifestaldia kalean dabillen artean, ez zaio erreza izango fiskalari, gaztea eriotzara eramatea... Eriotza batengatik beste eriotza bat eskatzea, alperrikako gauza bait da; bizitzarako eskubidea izanik gizakiaren eskubiderik oiñalrizkoena. Aurgalduari ukatzen zaiona.

Egoj-aizea, zoro-aizea, sorgin-aizea. Orra iru izen; kostaldean, berriz, erreka-aizea. Egoi-aizeak eta jllar-i beteak alkar jotzen dutenean, orduan izaten da gure buru-garunetan alako ari-eten eta lotura-askatze bereizia... irudimenaren ganbara puztu, goiak arrotu eta zorabioa sortutzeko moduan.

Gaur il-bete eta egoj-aize.

Eriotz-zorraren aurkako manifestaldiak, amnistiaren aldekoakin topo egin du Barrenkalean. Jende-moltsoak kaleak bete dabiltza, erlauntzaren zurrumurrua sortuz gorutz datorrena eta teillatutik teillatura zabaltzen dana laiño baten itxuran... Bi manifestaldi naikoak ez dirala, Emakume Askatuek sortu dute irugarrena Goikokaletik Barrenkalera oiuka:

— Emakumea, kateak eten, Aur-galtzea libro, Aur-galtzearen eskubidea, askatasunaren gaillurra...

Kriminalari eriotzik ez... Amaren sabeleko aurrari eriotza bai... Preso dagoen gaizkille guztiei, askatasuna... Orra zer konpota eder... Orra zer saski-naski trakets... Zer naaste-borraste ikaragarri... Gaizkillearen bizia aurteko eskubidea ematen diogulako eta une berean, gaur errugabearen eriotza eskatu, amaren askatasuna dala aitzeki...

Gure gizarte au erotasunari emana dirudi...

Sortutako aurrak askoz geiago -altzen omen dira, jaio baiño. Aur-galdu auentzat betetzen da Joberen aieneka:

Utikan nere soseguna

eta sein arra sortu da zioten gana.

Egun ura itzali bedi,

goitik Jainkoak ez dezaiola begira

ez eta argiak bere izpirik eman aren gaiñera...

Gau artaz illunbea jabetu bedi...

goi-izarrak ez bekio bere argirik eman.

Zergaitik ez nintzan umontzitik arat il, amasabeletik sortzean bizia galdurik?

Zergaitik, aitararen belaunak nere zai zeuden eta amaren ugatz biak ni azteko gerturik?

Orain nare nintzake, lotan atsedeten...

Gentza eta bakea bere bizi osoan nabari izan zuenak esaten ditu itz negargarri oiek kortako gorotzetan neke miñez etzanda dagoenean; lenago zorionez gaiñezka eta orain erio-samingarri baten zai... Bizitzan, ordea, argia berriro piztu zitzaion eta madarikapen oiek ukatu. Eguna berriz ere, gau beltzaren ondoren, piztu zitzaion. Jainkoari barkapen eskatzen dio eta eskerrak ematen kantari.

Madarikapenak bedeinkapen biurtzen aukerarik ez zaie, Job'eri bezela, ematen millioika aurreiri: bein betirako irailak, beste aukerarik gabe.

Bera mundura ekarri zuen emakumearen askatasunaren ize-nean... !

Kateak autsi semeari buruan mazoakin emanez.

Libertade merkea!

Arazo oneri buruz, ona ipui zaar bat:

Iñuxente egunean eun aurtxo gerturatzen omen ziran Herodes'en illobira; Belen'en illerazi zitun umetxoen animak. Alkarrri eskuak emanda Herodes'en illobiaren inguruan dantzan eta

kantari iltzaillea madarikatzen... Herodes, izuak artuta, iges doa eta aurrek bere ondoren garraixika. Zorabio artan lapur-zulo batean sartzen da; baiña, lapurrek bere zulo artatik makilka ateratzen dute, ez bait dute euren artean orrelako gizon ankerrik eta zitalik nai. Lapurrak dira eta lapurretan egiten dute; tarteka, besterik izeñean, odola ere ixuritzen dute. Aurrak erailtzea, ordea, beste arazo bat da eta eurok ez dute orrelako biotz beltzik... Andik jrtzen eta eroturik korrika itsas-lapurren ontzira salto egiten du, aurrak ondoren ditula. Kapitanak ezpata-muturra ipintzen dio Herodes'ri gerrian eta kanpora ateratzen du asarre bizi. Begi bakarra izan arren eta errena, oietxek izaki bere eginkizunaren señalerik inenak, aurrak erailtzea ez da bere lana, naiz-eta tarteka barkuan ondoratu. Baiña, burruka leiak batean, begia eta anka galtzeko arriskuan... Aurrak erailtzea, ordea, arrisku gabeko lan negargarri bat besterik ez da:

— Kanpora nere barkutik biotz gabeko gizakume ustel ori...!

Igeska doa berriro errian zear eta estutasun artan etxetxo baten ateira iriki eta barrura sartu da babes billa. Une artan sorgin antzeko emakume zikin batek jostorratz luzea du bere eskuetan, ogean dagoen ama gazteak sabelean daraman aurtxoari, sartzeko. Ori ikustean Herodes'ek burua jasotzen du arro:

— Ni ez nintzan zuen ama. Ama orrek berak galtzen du bere aurra!

Umetxoek, burua makur eta malkoak be-ietan, bakoitza bere illobira. Arrezkero pakean omen da Herodes.

Gogorrrak iruditu zitzaion Iñakiren itzak eta bereala ziran ez eta bai. Ni bien bitartean lasai: guk ez ditugu geure aurrak galtzen berezko okerkeriren bat ez bada. Astoak gerala eta astakeriak egiten ditugula... Eskerrak gizon sortu ez nindutela; beste-la gizkonkeriak egingo nituzke. Oiek bai dirala benetako okerkeriak. Nagon asto. Anton Baxarrik eman zion mintzairari asiera:

— Esandako itz oiek gogorrrak dituk benetan. Oriek orrela al dira?

— Zer iruditzen zaik? Dira ala ez dira? Iñakik erantzun.

— Bai, ala ematen dik; baiñajendea ez zegok orrekin konforme...

— Konforme ez egon arren -zion Anton Kalek- izan ala dituk, naiz-eta askatasunaren ikurrifñaren azpian zatorkeri asko gorde...

— Zer zatorkeri ... ? Anton Baxarrik.

— Norberekeria ugari: ni ondo izan ezker, besteak orkonpon. Anton Kalek.

— Geure burua maite, beste guztien kaltean bada ere. Iñakik.

— Jainko txiki orreri eskeintzen diogu baita geure semeen bizia ere. Ori bai dala benetako Molok.

— Anton Kale, eta nor da Molok ori? Anton Baxarrik.

— Israel inguruko errien jainko txiki bat.

— Eta, zer egiten zioten ba jainko orreri?

— Bere brontzezko irudia sutan goritu eta seme-alabatxoak berari bota bertan erre zitezten.

— Ori bai dala astakeria, ori!

— Eta aurgaltzea astakeri txikiagoa al da? Iñakik.

Nik, nere jabearen aotik, oiek entzutean ekin nion arrantzaka ikuilluan, protesta bizian: guk ez de-u orrelako gizonkeririk egiten...! Nere nagusi kopeta aundia kortan sartu eta makilka asj

KONTU KONTARIA

zitzaidan, ni ixil arazteko. Ni, berriz, ari ostikoka. Artan amaitu zan bart arratseko billera. Asarre jeiki da nere aurka Iñaki, arazoa bukatzeke utzi zutelako. Gaur bilduko omen dira berriro.

III

Bildu dira gaur berriro nik esan bezela. Atzo erabillitako ariari eldu diote, baiña giroa ostuta zegoen. Gaiari amaiera emateko onela zion Iñakik:

– Dana dala eta dena den, ibilli oker aietatik etorri zitzaion pakea Herodes'eri.

Pelix Txortak erantzun:

– Pakean utziko zuten aurrek, baiña ez bere konzienziak...

– Konzienzia -Anton Baxarrik- berdea zan eta astoak jan omen zuan.

Ori entzutean ekin diot arrantzaka: gizakumeak okerra egi-duten bakoitzean zergaitik ateratzen gaitue platerera...?

Iñakik orru egin zidan sagardotegitik:

– Ago ixillik, Periko, sekulako paladea artu nai ez badek!

Ixildu bearke eta ixildu naiz, makilka ilko nau beztela. Baiña Pelix Txorta ixilduko duenik ez dago, esatekorik duenean. Eta gaur esateko dago. Gerratean entzundako gertakizuna dakar maira.

Konziencia il-eziña

Egun gorriak ziran egun aiek.

Erri osoak kamiñoetan zear, nora ez zekitela, euren aberastasun apurrak bizkarrean zituztela. Geienak andrazko, ume eta agureak ziran. Gaztedia eta gizaseme gordiñak mendietatik zebiltzen, armak eskuetan...

Anai-arteko burruka beltz iguingarria. Guda legorra. Odolez gorri, bekaitzez illun. Malko mingotzak begietan... Gose eta egarri. Bero eta otz. Aterperik eza. Kamiño bazterretan lo...

Mendietan arerio zital errukigabea, jaun eta jabe.

– Cien a ochenta! Cien a ochenta!

– Zeñen alde...?

– Gorrien alde.

– Bai.

Laterriaren kapitaleko irratian Prieto jauna:

– Gu Bera nagusi, gu garaille! Ona emen gure armak...

Ontzako-urreen tin-tina, irratia bidez, erri guztietara, sukalde guztietara... Urrea gorri bait zan... Urdiñek ez zuten deusik.

– Zuek ez zerate ezer, urre-gorria gurea bait da...!

Urre-gorrikan kanpo bada besterik, ordea.

Egun artan urregorridunak aurretik igeska eta urdiñek ondoren aurrekoak arrapa naiean. "No pasarán" bide-ertzeetako

ormeetan. Esan bearra dago, Espainiako urre-gorriak Madrid' en zeudela eta ez Euskadin. Emen ez diru, ez egazkin eta eskueta-ko armak ere oso urri.

"Detente bala, el Corazón de Jesús está conmigo" erasoka zetozenen kaki koloreko soiñoetara... Naparrak geienak. Oietako batek iru arrasto ori gerreraren esku-muturrean: brigadamaillako adierazgarria.

– Etorri zera berriro, Petrikorena?

– Bai, gizona. Makiña bat egun larri pasa dugu.

– Nundik zatoz?

Bizkaitik, Lemonako aitzeetatik.

– Ara año eldu zerazte?

– Neke eta odol-ixurtze ugari bitartean...

– Ainbeste...?

– Odolez ditut eskuak zikindu.

Begiak zitun larri, beuron zuloetatik irten bearrean. Barruko larriak eragiten zion mingaiñari. Itz-jario gendukan gau artan eta pattarretan barruko arra il nai. Taberna zuloan geuden berarekin iru lagun zaar. Barru-barruko korapilloa askatu nai. Karga aztuna estomago-zuloan. Gonbito-larria eta nora-ara bota bear zikin aiek. Geu gerta giñan zikin-zulo.

– Zazpi illebeta dira guk emendik alde egin genduela...

– Zazpi illebeta luze.

– Zuk ez dakizu ondo... ! Negu osoa mendian aterperik gabe.

Euria eta bisutza, elurra eta kaskabarra... Ezurretaraiño bustiak, otza ezur-muiñetan eta izotza animaren biotz-erdian: eozkor eta legor. Espirituaren toleste izkutuenean gure aingerua illik... Deabruaren menpean...

– Zer ari zera, gizon...?!

– Guda anker onek maitasuna antzutu digu biotzean eta pizti nazkagarrien antzeko egin gaitu.

– Ez dizut tutik entenditzen.

Gerratean ezagutu nuen Petrikorena. Ezaupidea bai, besterik ez; beartuta egin bait ninduen euren arteko eta euren mendeko. Arrituta nengoen ark neri esan bearrearekin. Begiak zeuzkan urrutian, beuren zulotik irtetzeko zorian; ezpaitetako ertzak txistu-aparrez, biboteko illeak dar-dar, ames-larrian erortzeko larri:

– Aizu, etxeoandrea, kopatxo bana pattar ondoezak emango dio bestela-ta.

– Utsune illun batean erori nai nuke eta an illunpeetan neur burua galdu...

– Zer ari zera? Zer dezu?

– Ezin dut burutik kendu.

– Zer da, baiña, burutik kendu nai dezun ori ...?

Aurpegiko giarrak eten bearrean, zimurrak sakon eta luze gora-ta-bera bekoki eta matrail-ezur inguru guztian...

Tinko.

Leertzeko zorian.

– Zubi ondo batean giñan, gure buruak erreka malkarrean, gorderik, oiñak udetan. Egun-sentiaren argia, sutautsaren kolorea galdurik, urdiñez jazten ari zan. Txoria beuren ezarriak

garbitzen, egunari agur egiteko. Izaki guztietan Udaberria nabari, geure biotzetan ezik. Begiak mendi arren gaillurrean genduz kan josita, aitzaren erpiñean... Goi aretan bazan ere, guk ez jakin, ordea, zer.

– Zenbat ziñaten?

– Gizaseme asko. Millaka. Bat-batean kañoi-burrunda aidean. Mendi-inguru oso sutan. Ke-mordoak, perrikoen antzera. sortzen ziran gaillur aretan kañoisoiñu bakoitzeko...

– Musika ederra.

— Ondoren ogeita amar egazi aitzetatik zear beuren bonbak botatzen.

Baillara osoa zarata-oiartzunez bete zan eta biotzeko korapilloa zarata aretxek lasaitzen zigun. Nola argizari itzalberriak keia darion, ala millaka kandleen keiak Lemonako aitzetatik zerurantz. Izugarrizko zurrumuru aren ondoren, ixilla. Txoritxuak izu eta mutu. Egun-sentía epel eta ixo. Errekako ur gardenak marmarioka itsasoruntz. Beste otsik, ez inguru guzian...

— Eta, zuek'?

Gu mendi-tontorrera begira, bizirik ote zan iñor.

– Luze irauñ zuten bonbardeoak?

— Kañoi eta egazkiñek ordu pare bateko lana egin zuten. Turutak urratu zuan ixil-aldia. Jeiki nintzan lurretik eta mutillak ondoren nitula, ekion nion mendiko egaletik gora. Ez zan ikusten ezer ez-eta sentitzen ere... Ames batetik bezela, ametralladora batek esnatu nindun ta-ta-ta-ta-ta-ta... Ondoren garraxia, aiena, madarikazioa...

– Eta...'?

– Lurrari itsatsita gelditu giñan, alzuana al zuan tokian. Laparik ez da sekulan aitzari josi guk lurrari eldu giñun bezela... Oraindik ere bizi dituk madarikatu oiek... Burua jasotzen zuanari zuloa egiten zioten txapelean... Belar-izpi batek egiten zidan kili-kili sudur-zuloetan... Lurraren usaia bai usaj gozoa eta sentikorra: ama lurraren babesak gordetzen nindun bere magalean. Lur-ikara batek azpia jango balidake...? Orduantxe susmatu nuen lur-erdibitze baten ikaragarria. Lurraren segurantz galduta, an galtzen dira gizonaren ziurtasun guztiak. Lurraren ziurtasunak ematen dio gizonari bere segurantz.

– Luzaro egon ziñeten mogitzeke?

— Ordu luzeak lurren gaiñean etzanik.

– Noiz arte?

— Iñularrean turuta otsa berriro: erre kara berriz ere izkutu billa. Gau osoa ibaiaren babesean izarreiri begira. Amabiak inguru izango zan illargia mendigaiñetik agertu zitzaigunean. 11-gora. Izotza. Ez jan eta ez lo. Errekako ura erateko. Esku-oiñak izoztuta eta burua galdatan. Ames eta esnai, lo-kuluska batzuek egin nituen.

– Gaua luze?

– Bai eta eguna zabaltzeko bildur. Bildurrakin batera, zirt edo zart egiteko gogoa eta irrika. Goizaldean kañoiak eta egazkiñak atzo baiño areago: Lemonako aitzak mpernuko ate.

– Lagun berririk?

— Oste berriak etorri ziran, batallaoi geiago. Guztiok mendira, bata bestearen ondoren. Eldu gera maldan gora erdiraiño. Lurraren kontra arnasa apur bat artu eta, gora mutillak...! Eun metro egin baiño lenen gure elkarteko amaika lagun galduta daude: ogeita amarretik, amaika. Zeiñ elduko da goiraño?

– Ainbeste bonbardeo eta oraindik bizi ziran'?

Bai, bizi ziran; ez dakit nola. Goienengo gaillurak zuloz beterik zeuden. Une artan eguerdi-eguerdia zan eta eguzkiak nolabait ere berotzen zuan apurtxo bat. Arri baten babespean gordetzen nuan neure burua. Eguzki epeletan tiroak alde guztitik... Zein ederra dan bizia; nik, ordea, egoera artan bizitzarako itxaropenik ez. Etorkizuna beltzez agertzen zitzaidan goiz artan; aurrean nuen orma beltz aundia igaro eziña zan. Eguzki argitua azalean, illuna biotzaren erdian...

— Zer jokabide izan zenduten'?

– Arriskuan gaude denok, pentsa nuan eta kañoiak ekin diote berriro goiko armaillara. Egarri naiz; ai beko ur gardena edateko... Sukarra odoletan eta txorabioa buruan. Jeiki naiz: goraiño mutillak, gaillurreraño...! Jeiki eta etzan, zoro baten antzera, beti babes baten billa... Tiroa eskubitik eta tiroa ezkerretik, esku-bonkak arrika nun nai... Eldu gera goraiño eta gure etsaiak igesi dijoaz... Gurea da garaipena! Gora gu ta gutarrak! Aurrean zanga-zuloak; argaletik indarrak atera eta salto baten sartu naiz barrura pistola eskuan dedala. Ni ikustean:

– "Confesión" deadar eritutako etsai batek.

– "Que te confiese tu padre" esanez bost bala sartu nizekion buruan.

Arnasa barru-barrutik artu du nere lagun onek eta arpegiko tinkoa lasaitu zaio, burua makur... Etsaiari ukatu zion konfesioa, berorek bear, gizarajo orrek. Badu bere bizitzarako naiko atsekabe eta konzintziko aztun...

Sagardotegikoak ixilik entzun zioten istoriaren amaiera. Une baten ondoren Anton Kalek artu zuan itza:

– Ori benetan gertatu zan?

– Lemonako aitzak urdiñek artu zuten egunean.

– Gogortxo dek.

– Eta gerra ura zer izan zan, gogorkeriz asetako guda zital bat besterik?

Orduko okerkeriak amaierarik ez dute: sinisgabeko ateak egiñak aundiak izan badira, guruizedunek egindakoak ez dira atzean gelditzen. Aien okerkeriak berrogei urteen zear milla modutara entzunda dauzkagu; baiña, urdiñek egindakoen berri tokian tokikoek bakarrik jakin izan dituzte...

— Bai, orduan ezaguera zutenek erailtzen asko ikusi edo entzun izan dituzte gure artean, kamiokada gidaseme amiltegian bera botatzea bezelakoak...

– Gure errietako edozein kirtenek egin dezake orrelakoak eta egin dituzte, baiña, kapellau bateri entzunda daukat "Brigadas Internacionales" oietako soldadu polako bateri gudazale kristauek egiña...

– Zer zan, ba...?

– Erasaldi batean preso artu zuten eta sokaz barrabilletatik lotuta erabilli ondoren, ametralladora baten ankakin errematatu.

– Ezin liteke ori orrela izan.

– Nik ez det asmatu. Entzundakoa esaten det itzez-itzez. Eta arek ez zuan penaz esaten, kontakizun xeble baten antzera baizik. Ez ziran karpeto-betonikoak; guretarrak baizik.

Anton Kalek:

KONTU KONTARIA

— Ikaragarriak izan gaituk, onbidetik bezela txarbidetik ere. Loiolako Iñigo eta Xabierko Prantrizkorekin batera agertzen zaigu Lope de Aguirre "El Traidor", Araoz'ko semea, Felipe II

Irurak, bakoitza bere bidetik, aundiak. Badira kaskarrak ere biotzgabeak. Ona mixiolari batzueri gertatua:

Katu beltz

Urte asko dira Euskalerrria Ameriketara begira asi zanetik, ango erri atzeratuerei Kristautasun bidean laguntzeko. Gazteizko Elizbarrutiak, irutan zatitu aurretik, mixiolariak bidaltzen asi zan. Naparroak ere bialdu izan ditu; baiña, bere kasa jokatu du beti gauza auetan bezela besteetan ere.

Mixiolari artean Euskalerritik Ameriketara eta andik onerako joan-eto-rria ugaritu ziran. Ekuador'eko Los Rios probintzia aukeratu zuten asierarako. Geroago El Oro'ra zabaldu ziran. Andik Manabi'ra, Venezuela'ra, Brasil'era, Angola'ra, Ruan da'ra... Nora ez?

Ekuador Ego-ameriketan dago. Cura~ao, itsas-ertzeko erri aundi eta naasia, zan Euskalerritik arako bidean tarteko. Bere moilletan enda eta arraza guztietako kristauak billa zizezkean: esnea bezin zuri eta kafea bezin beltz. Baita kafe-esne kolorekoak ere: mulato eta kriollo, enda guzien ondorenak.

Egun artan bi mixiolari, itsas-ontzitik irtenda, moilletan itz-jario:

— Zenbat euskaldunen oiñek zapaldu ote dute moi lla auk...?

— Cristobal Colon'ekin asi, bere barkuko euskaldunekin, eta arrezkero etengabeko errenkada luzea...

— Geu ere aien tartekoak gaituk.

— Izan ere euskaldunok ez gaituk jaio geldi egoteko.

— Lurralde eman zigun Jainkoak eder. Millaka urteetan egon gaituk Auñamendi ni itsatsita bezela geldi; Geure jatorria mendiari lotutako baserrietan zeukagu... Zer arane gertatzen zaiguk...?

— Biotza urduri eta eziñ-egona zaiñetan; lur zabalagoak bear, nun bait.

— Bai, gizona. Millaka urteetan geldi egoteko kapaz gaituk. Bitartean, ordea, mundu borobillari buelta osoa emango dion euskaldunik, gogora zak Elkano getariarra, ez dek egundo faltako Euskalerrian...

— Illargian ere ataudarren bat ba omen da, diotenez...

— Tipoleji gaieko ikerketa bat egiteko ez giñake gu elemento txarrak izango, etxetik kanpora gabiltzanotik asita...

— Euskaldunok, beste erri askok bezela, badiagu guk ere berezko jatortasun bat odolak emana...

— Izketan ari aizela Uzkudun zetrorkidak burura eta bera bezelako indartsu asko. Karga jasotzen eta aizkoran iñor ez bezelakoak...

— Boxeoan ere Europako txapeldunik ez dek gure artean falta.

— Gorputz tinko lerdena eta bei batek aiña indar. Orrelako tipoak maiz jaiotzen dituk gure mendietan...

— "Arta-buru" galantak ere bai; baiña, baita ere buru argi-koak eta ez bat ere tontoa, bizkorra eta maltzu rra...

— Zenbat orrelako sortzen ditu gure lurrak...

— Gure baserritik lurralde zabal auetara ekarri eta eman bota libertade osoan... Eta, zer gertatzen ote da?

— Kirten galanta izateko aukera ederra.

— Baita Bolibar baten antzeko.

Izketan ari zirala, ikatza baiña beltzagoko emakume gazte bat aldamenen jarri zitzaian curari begira-begira eta esaten zutena entzun naiean... Mintzo andreak:

— Zuek euskaldunak zerazte.

— Nundik antz eman diguzu...?

— Tankeran eta izkeran. (Andrea erderaz ari zan).

— Euskeraz al dakizu?

— Ez, ez dakit askotan entzun arren. Zuek beste jaun batekin erderaz ari izan zerate; bakarrik geldi zeratenean, ordea, beste mintzo bateri eldu diozute...

Euskeraren antza artu diot. Gaiñera zuek nere gizonaren antzekoak zerazte...

— Bai?

— Bai, jauna. Arren tankera eta itxura dezute biok.

— Euskalduna al dezu ba gizona...?

— Bai, euskalduna nuen.

— Ilda daukazu?

— Ez.

— Gizona euskalduna "zendula" esan diguzu...

— Euskalduna nuen, bai. Gaur nere aldamenetik joana det eta ez dakit nora. Alde egin zidala, orixe bai, badakit.

— Besterik gabe utzi al zaitu?

— Bai.

— Ori jokabide eskasa da...

— Neretzako ona zan.

— Ez du orrelakorik ematen...

— Nik asko maite nuen. Nere semetxo au berea da.

Ori esatearekin batera, bere semetxoa erakusten die: bel-bel-tza; kirkirra baiña beltzago.

— Berea da...?

— Bai, berea da.

— Bere aurrekoen antzik ez du.

— Nere aurrekoena bai, ordea. Eta semea biona degu.

— Zer izen du?

— Izen euskalduna.

— Euskalduna, e...!

— Aitak zionez, bai.

— Eta, zer izen?

— Katu-beltz.

Guk, astuok, astakeriak egiten ditugula esango du gizonak; baiña, orrelako gizonkeririk ez degu guk sekula egingo: katua-izena ipiñi bere semetxo bateri, alazankoa...! Bere ondorengo bat katu-maillara jetxi...!? Noizko dute gizatasuna eta arrotasuna? Utikan gizona! Lotuta naukatelako; bestela alde egin nuan... Bai orixe... Gizona al da izaki guztien errege...!? Nagon asto.

(Periko Fortuna. Astarra.)

EUSKALDUN BARRIENTZAT

7

o

o

Marrazki onetan 10 ezbardintasun dagoz.

O

O -

® -

q

T

n

® -

~j



U d/

1 1

Marrazki onen artean
bi dagoz bardiñak
Zeintzuk?

l

ti




Lotu zenbakiak eta marrazki bat agertuko da.



Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa